

Kokein taldea

DVDa grabatu dute Espaloian
KULTURA, 24



Mondrak 5-2 irabazi zion etxean Allerruri

Aloñak 4-3 eta UDAk 2-1 galdu dute asteburuan etxetik kanpo
KIROLA, 14-15

Lagash taldea

Diskoa aurkeztu zuten gaztelekuan
KULTURA, 22-23



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko apirilaren 10a • 3. urtea • 97. zenbakia • 0,90 euro

Debagoieneko euskara elkarteak berritze prozesuan

Herritarren inplikazioa eta motibazioa areagotzeko formula berriak aurkitu behar direla diote

Debagoieneko zortzi euskara elkarteek helburu berbera dute: euskararen normalizazioa. Herriaren tamainaren arabera, askotariko bazkide kopuruak dituzte, eta horrek badu bere eragina haien funtzionamenduan. Denek, ordea, analisi bera egiten dute: herritarren inplikazioa txikia da eta formula berriak aurkitu behar dira hori aldatzeko. **2-3**

ZORTZI ELKARTE
Zortzi dira Debagoieneko euskara elkarteak; bateranoena, 1983an sortutako Arrasateko AED

IDEIA BERRIEN BEHARRA
Jende eta ideia berriak beharrezkoak direla diote ibarreko euskara elkarte baten baino gehiagotan

EKINTZA UGARI
Aisialdirako proposamenak egiten ematen dute denbora luzeen elkarteek; asko, oso arrakastatsuak

BALIOAK TRANSMITITU
Elkarteotan argi dute kultura politikak indarra hartu behar duela, balio premia handia daogelako

ASTE SANTUKO OPORRAK

Kaixo, irakurle. Aste Santuko oporraldia dela eta, datorren astelehenean, apirilaren 17an, hain zuzen ere, ez da ASTELEHENEKO GOIENKARIArik izango.

Hurrengo zenbakia apirilaren 24an kaleratuko dugu. Ordura arte, ondo ibili!



JOSETXO ARANTZABAL

MEIGAK UXATZEKO QUEIMADAREKIN BUKATU ZUTEN JAIA

Hiru egunez luzatu da Arrasaten egin duten galziar jaiak. Datu bat aipatzearren, Lugotik bertatik 500 kilo olagarro ekarri zituzten. Hala, bapo jan eta folk ikuskizunekin gozatzeko aukera izan dute festara gerturatu direnek. Jaialdia amaitzeko eta, bide batez, meigak uxatzeko queimada herrikoia egin zuten atzo ilunkeran. **4-5**

Euskadiko Kutxak beste 24 bulego zabalduko ditu aurten **9**

Bergarako IATn egun osoko greba egingo dute bihar eta etzi **11**

Erramu Zapatuko feria berrantolatzea pentsatzen ari da Udala

Milaka lagun izan ziren zapatuan Bergaran, Erramu Zapatuko ferian. Postuak ere ugari izan ziren, eta, horren haritik, datorren urterako azoka berrantolatzea pentsatzen dihardu Udalak. Udaleko iturrien esanean, Euskal Herriko ekoizleen presentzia indartu gura dute eta kanpotik datozen postu kopurua mugatu; azken batean, ferien funtsa bertako lehen sektorea delako. **8**

C-MAX 30 urtemuga
16.800€-gatik

Ford Focus C-MAX

MUGARRI AUTOAK Araba Etorbidea, z/g ARRASATE

GEUREAN

- Milaka lagunek hartu zuten parte zapatuan Arantzazuko erromesaldian | 6
- Ume minusbaliatuendako jolas-parkea egitea proposatu dio Ezker Batuak Arrasateko Udalarari | 10

Eguaztenean
hasiko da Ogasun
saila baiezkoa
ematen
autolikidazioei | 10

EUSKARA ELKARTEAK DEBAGOIENEAN

Zenbakiak

8

Zortzi dira ibarrean ditugun euskara elkarteak. Gatzagako elkarte Gurel guraso elkartearen barruan dago.

2.820

Herriaren tamainaren arabera, Ibarreko euskara elkarteek bazkide kopuru ezberdinak dituzte. Guztira 3.000 inguru.

23

Duela 23 urte sortu zen Arrasateko AED elkarte, eta Debagoieneko euskara elkarte beteroena da.

842

842 bazkide ditu Arrasateko AED euskara elkarteak, eta denen artean bazkide kopuru handiena duena da.

240

240 bazkide ditu Elgetako elkarteak. Biztanleko bazkide kopuru handiena duena da; herritarren %27 dira bazkide.

84

84 dira Topagunea Euskara Elkartearen Federazioan federatuta dauden euskara elkarteak, ibarrekoak tarteko.

Esandakoak

"Jende eta ideia berrien beharra sumatzen dugu elkarteetan".

JABIER ETXANIZ |
IDOLAZ ELKARTEA

"Etorkinak, merkataritza... Asko dago egiteko, eta ez gara heltzen".

IÑAKI OLALDE |
LAIXAN ELKARTEA



JOSETXO ARANTZABAL

Bergaran Berriketean ekimenak elkartzen ditu euskaldun zahar eta berriak.

EUSKARA | NORMALIZAZIOA HELBURU

Euskara elkarteak hausnarketa prozesuan

Debagoieneko euskara elkarteak bat datoz: herritarren inplikazioa eta motibazioa landu behar dira

Larraitz Zeberio

Debagoieneko euskara elkarte mugimendu ugari dago azkenaldian. Urteko batzarrak egiteko garaia da, eta, esaterako, zuzendaritza batzorde berriak izendatu dituzte Arrasateko AED eta Bergarako Jardun elkarteetan. Topaguneak ere –Euskara Elkartearen Federazioa– lehendakari berria izendatu zuen joan zen astean egindako batzarrean.

Debagoiengan zortzi euskara elkarte daude, hala nola: AED (Arrasate), Loramendi (Aretxabaleta), Jardun (Bergara), Idolaz (Antzuola), Goibeko (Elgeta), Axtroki (Eskoriatza), Txirritola (Aramaio) eta Laixan (Oñati).

Leintz Gatzagako kasua berezia da, Gurel guraso elkartearen barruan dago eta euskara elkarte. Gutxi zirela ikusirik eta indarrak batzeko helburuarekin bat egin zuten orduko Pageder euskara elkarteak eta Gurelek. "Erabaki genuen gure ahaleginak umeendako ekintzetan zentratzea, eta 30 bat guraso ari gara elkarteetan", azaldu digu Gurel elkarte kide Edorta Aranak.

INPLIKAZIOA FALTA

Euskara elkarte gehienek aisialdirako proposamenak egiten eta kultura ekintzak antolatzen ematen dute denbora luzeen. Euskararen normalizazioa dute guztiek helburu, baina konturatu-


• DEBAGOIENEN EUSKARA ELKARTEEN ERRONKEI BURUZ GALDETU DUGU



ZIGOR MASIP |
AED (ARRASATE)

"Bazkideak guregana hurbiltzea lortu behar dugu, inplikazioa"

"Plan estrategiko berria diseinatzeko ari gara, eta hor finkatuko ditugu 2006rako lan ildoak. AEDk 850 bazkide ditu eta euren guregana hurbiltzea nahi dugu, inplikazio maila handiagoa topatu nahiko genuke. AEDk nagusitasuna berreskuratu behar du Arrasaten".



IKER URKIA |
LORAMENDI (ARETXABALETA)

"Gure helburu nagusia aisialdiko ekintzetan erreferente izatea da"

"Euskararen erabateko normalizazioa gertatzen ez den artean Loramendiren helburu nagusia da herrian izaten diren aisialdiko ekintzetan –nagusi, gazte eta batez ere ludotekaren inguruan – erreferente nagusia izatea, betiere euskara helmuga dugula".



OIER BOLIBAR |
JARDUN (BERGARA)

"Garrantzitsua deritzogu herrira iristen diren etorkinekin lan egitea"

"Alde batetik, etorkinendako euskara errefortzu ikastaroekin jarraituko dugu, arrakasta handia dutelako; bestetik, Bergarako euskalgintzako foroetan –Berba eta EBPN– parte hartzen jarraituko dugu, baita kultura ekintzak bultzatzen ere".



BELEN AZKARATE |
IDOLAZ (ANTZUOLA)

"Herritarrek elkartearekin gehiago inplikazioa lortu behar dugu"

"Dinamismo handiagoa eman behar diogu taldeari. Aspaldi honetan taldea gelditu egon da. Gutxi gara lanerako, eta herritarrek euskara elkartearekin gehiago inplikazioa lortu behar dugu. Bertso ikastaroak ondo funtzionatu du. Jarraipena emango diogu".

EUSKARA ELKARTEAK DEBAGOIENEAN



ARTXIBOA

Arrasaten urtero egiten dute Mugarriz Mugarri.



ARTXIBOA

Iparraldeko Oñatin ekimenak jende ugari batzen du Oñatin.



ARTXIBOA

Aretxabaletako Euskararen Eguna ere arrakasta handia du.

ta daude formula berriak aurkitu behar direla, gizartearengana iritsi eta herritarrengandik inplikazio maila handiagoa lortzeko. "Arazo puntualak sortzen direnean badago potentziala, baina lan jarraituagoa egiteko ez", adierazi digu Arrasateko AED elkartearen lehendakari berriak, Zigor Masipek. "Izan ere, euskara elkarteekiko motibazioa ez da behar bestekoa".

Iritzi berekoak dira Antzuolako Idolaz elkartearen. "Jende eta ideia berriak behar ditugu elkartearen", esan digu Jabier Etxanizek. "2003an elkartearekin jarraitu edo ez erabakitzeke batzarra deitu genuen eta zortzi lagun besterik ez ginen elkartu. Antzuola herri euskalduna da, baina argi ibiltzen ez bagara hori azkar alda daiteke".

LORPENAK ETA ERRONKAK

Dena ez dute, ordea, beltz kolorekoa ikusten Debagoieneko euskara elkarteetan. Talde horiek arrakastatsua diren hainbat proiektu dituzte martxan ibarrean; esaterako, Aretxabaletako Algara ludoteka, Elgetako Espaloia kafe antzokia, etorkinendako errefortzu eskolak Bergaran, Arrasateko Txatxilipurdi eta Ekin taldeak... Ahalik eta herritar kopuru handienera heltea eta euskarazko kultura ekintzak ahalik eta era duinenean eskaintzea da elkarte guztien erronka nagusia. "Balio premia handia dago", esan digu Elgetako Goibeko elkartearen lehendakari Iban Arantzabalek. "Kultura politikak indarra hartu behar du, kultura demokratizatu egin behar dugu".

ELKARTEEN SORRERA | 25 URTE EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN BIDEAN

Garai berrietara egokitu gura dute elkarteek

Gizartearen sumatzen diren aldaketetara egokitu nahi dute euren lana euskara elkarteek

L.Z.

Laster beteko ditu 25 urte Arrasateko AED euskara elkarteak. Debagoieneko euskara elkarte beterranoena da, 1983. urtean sortua, eta aitzindari izan da Euskal Herriko euskalgintzan. Martxoan egin dute AEDn urteko batzar nagusia eta Zigor Masipe izendatu dute lehendakari. Elkarte berrantolatze lanetan dabil. Bazkideak erakarri eta inplikatu egin gura dituzte.

Bergarako Jardun elkartearen 1990eko maiatzean sortu zen eta egun 517 bazkide ditu. Azken urte-

etan bazkide kopurua mantendu egin da, baina Jardunen ere berri-tze momentuan daudela adierazi digute. "Maiatzean edo ekainean bazkide kanpaina egingo dugu. Bazkideak Jardunetik gertuago egon daitezkeen nahi dugu".

Urtebetera sortu ziren Oñatiko Laixan eta Eskoriatzako Axtroki elkarteak. "Herrian bazkide gehien dituen elkarteetako bat gara", esan digute Laixanetik, "baina hasierako arrakasta jaisten joan da pixkanaka. Ekintza berriak sortu behar ditugu eta jendearen inplikazioa lortu". Eskoriatzako ere aldaketak egiteko beha-

rra sentitzen dute. "Gutxi gara, elkarteak dituen beharrei aurre egiteko. Orain, hausnarketa prozesua hasiko dugu, datozen lan ildo nagusiak finkatzeko".

Aretxabaleta eta Antzuolako euskara elkarteak 1994an sortu ziren. Aretxabaletan premia handiak ikusten dituzte. "Gaztetxoek euskararekiko duten jarrerak kezkatzen gaitu", adierazi digute Lora Menditik. "Merkataritza arloan ere badira hutsune handiak". Antzuolan "jende berriaren beharra" nabarmendu digute. "Gaudenak ez gara dena hiltzen".

ELKARTE GAZTEENAK

Elgeta eta Aramaioko elkarteak dira Debagoieneko euskara elkarte gazteenak. Sei urteko ibilbidea egin dute eta biak herri aldizkariak sortzeko eratu ziren.

Elgetako elkarteak 200.000 euro inguruko inbertsioa egin du Espaloia kafe antzokia sortzeko eta kultura jardunean zentratzen du bere jarduna. Aramaion ere eskaintza kulturalen oinarritzen dute euren zeregina, baina argi dute elkarlana ezinbestekoa dela. "Elkarteak bakarrik ez lituzke euskararen egoera eta dagozkion arazo guztiak bere gain hartu behar. Nekez lor dezake aurrerapenik Udalaren, eskolaren eta bestelako taldeen laguntza barik".

"Herritarren inplikazioa lortzeko formula berriak aurkitu behar dira"

"Kultura politikak indarra hartu behar du, balio premia handia dago"



IBAN ARANTZABAL | GOIBEKO (ELGETA)

"Elkartearen erronka gure proiektu euskalduna sozializatzea da"

"Gure proiektu euskalduna sozializatu behar dugu. Jendeari ilusioa piztu, emozioak biziarazi, gozarazi, sentimenduak atera... Askotariko errealitateak azalratzea erronka da, eta hori guztia ahalik eta autogestio handienarekin".



ANDONI BENGOA | AXTROKI (ESKORIATZA)

"Hausnarketa prozesua abiaraziko dugu, hurrengo lan ildoak finkatzeko"

"80 bazkide gutxi dira, elkarte bateko lantaldean gertatzen diren aldaketei behar den moduan erantzuteko. Azken urteotan aisialdia, kultura... jorratu ditugu. Orain, hausnarketa prozesua hasiko dugu, datozen lan ildo nagusiak finkatzeko".



TXEMA ABARRATEGI | TXIRRITOLA (ARAMAIO)

"Txirritola elkartearen erronka euskararen erronka dira"

"Gurako gurek aramaiorrok euskara izatea gure adierazpen ezberdinen bidelagun. Aukeren eta mehatxuen inguruko eztabaida sortu, herritar berriak elkartera gerturatu eta Udala zein Arabako beste elkarteekin batera lan egitea dira gure erronka nagusiak".



IÑAKI OLALDE | LAIXAN (OÑATI)

"Ekintza berriak sortu nahi ditugu, jendea eta bereziki gazteak motibatuzko"

"Jende gutxi hartzen du parte elkarteak antolatzen dituen ekintzetan. Ekintza berriak sortu behar ditugu, gehienbat gazteak motibatuzko. Elkarte gehiago ezagutarazi behar dugu herrian eta gazteak elkartera gerturatu behar ditugu".

IRIARTE

Umeen denda

Helduen lentzeria




Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

GALIZIAR JAIA



JOSETXO ARANTZABAL

QUEIMADA HERRIKOIA | MEIGAK URRUN EGOTEKO | 50 litro orujorekin queimadak egin zituzten zapatu eta domeka ilunkeran, sorginak urrun mantentzeko.



JOSETXO ARANTZABAL

OLAGARROA ERREGE | TONA ERDI BANATZEKO | Galizia eta olagarroa jatea berehala lotzen dira. 500 kilo ekarri zituzten Galiziatik.

• ZER IRUDITU ZAIZUE DASTATZEA?



PAKITA ETA MIGEL |
ARRASATE

"Galiziarrek ez izan arren beti hartu ohi dugu parte eurek antolatzen dituzten ekintzetan eta aurtengo dastatzera ere ez genuen hutsik egin gura. Zapatuan eta gaur, domeka, etorri gara, egun bakoitzean gauza desberdinak jateko. Gaur enpanadilla eskatuko dugu eta, zelan ez, olagarroa. Giro benetan polita dago, mezetatik irten eta zuzenean etorri gara hona bazkal aurretik zer edo zer probatzera. Oso ona dago dena".



MANUELA, BONIFACIO ETA ROSALI |
ARRASATE

"Lehen San Andres auzoan egiten zutenean ere ez genuen behin ere huts egin eta aurtengo Laubidera etorri gara. Beti gustatu izan zaigu egun honetan egon ohi den giroa eta gaurko egun aparta ikusita aitzakiarik ez geneukan. Lagunak dira antolatzaileak eta etortzea ia nahitaezko zitzagun. Gose-tuta etorri gara, ea olagarroa eta ribeiro apurtxo batekin sabela isiltzen dugun. Giroa behintzat ezin hobea da".

GALIZIAR JAIA | GASTRONOMIA DASTATZEAK JENDETZA ERAKARRI ZUEN

Olagarroa eta albariñoa izan ziren festako izarrak

Egubakoitzean hasi eta atzo gauera arte galiziar jakien dastatzea eta folkloreak erakustaldia egin zituzten Arrasateko Laubide plazan

Jon Berezibar

Goseak ez geratzea izan bazen helburua, antolatzaileak pozik egon daitezke aurtengo galiziar jaiarekin. Tona erdi olagarro eta 70 kilo muskuilu nahikoak izan ziren egubakoitzetik domeka gauera arte tripontzirik handienak ere asetzeko. Janaria eta musika izan ziren asteburu osan nagusi Arrasateko Laubide plazan eta giroa ere bikaina izan zen. Galiziako ohiturei eutsita, queimada erraldoia eta guzti egin zuten ilunkeran.

Egubakoitz arratsaldean iri-ki zituzten postuak. Alde baten txosna handi bat jaso zuten eta parean Galiziako jakiak saltzen ibili ziren postuak. Antolatzaileek guztian pentsatu eta berrehun lagunendako jantokia ere ipini zuten karpa baten azpian, baina eguraldi bikaina egin du asteburuan eta aterpe beharrik ez zuten izan.

JANA ETA DANTZA

Arrasaten bakarrik 400 galiziar baino gehiago bizi dira eta jaialdia euren topaleku bihurtu da asteburuan. Lehen, San Andres auzoan antolatzen zuten, baina aurtengo Laubide plaza iruditu zaie egokiagoa eta han ipini zituzten postuak eta oholtza ere bai. Izan ere, jateaz gain hainbat folklore ikuskizun ere egon ziren.

Arrasateko Arrostitz euskal dantza taldeak eta Eibarko Galiziako Etxeko As Burgas gaita-jotzaileek ere egin zuten ikuskizuna. Hori zapatuari dagokionez, domekan Adunia folk tal-

deak emanaldia egin zuen nahi eta zalantzan egon ziren eurirengatik. Horren ondoren egindako queimada herrikoiarekin amaitu zituzten ospakizunak. Meigak kanporatzeko prestatu ohi dute edabea, han azaldu zuten.

Txerrikiak, olagarroa, itsaskiak, ogia, gazta... Eskaintza paregabea izan da asteburuko, eta dastatzeak bezain besteko arrakasta izan dute saltokiek ere, Manuel Moreiras antolatzaileak esandakoaren arabera. Gazta eta ogia saldu dira gehien. Dastatzean, berriz, olagarroa eta albariño ardoa izan dira jaun eta jabe. Guztia prestatzen antolatzaileek egindako ahaleginaren ostean pozik daudela kontatu zigun Moreirasek berak. Batez ere Udalaren babesa izan dutela gehitu zuen, eta datozen urteetan ere laguntza hori izaten jarraitzea nahiko luketela.

Jaia atzo amaitu bazen ere, hurrengo hitzordua prestatzen dabilta. Maiatzaren 6an izango da hori, eta orduan, Arizmendi ikastolako haur eta gurasoendako prestatuko dute olagarroa Arrasateko Ferixalekuan. Ondoren, hilaren 14an, Aita Mennira joango dira.

Folklore eta jakien dastatzea izan dira aurtengo jaialdiaren zutabeak

GALIZIAR JAIA



JOSETXO ARANTZABAL

GAITAK ETA PANDEROAK | FOLK EMANALDIK | Domeka arratsaldean Adunia taldeak kontzertua egin zuen Laubide plazan, ikusleen gozamerako.



JOSETXO ARANTZABAL

GAZTA ESKAINTZA EDERRA | SAN SIMON ETA TITI-GAZTA | Saltokietan asko saldu ziren gazte mota ezberdinak. Gehien saldu zena titi-gazta (tetilla) delakoa izan zen.

Zenbakiak

500

kilo olagarro ekarri dituzte Lugotik dastatzerako. Patata eta piperrautsarekin prestatu zuten olagarroa.

100

kilo Santiagoko tarta ekarri dituzte postrerako. Almindrekin egiten dute tarta eta oso ezaguna da han.

70

O Grovetik 70 kilo muskuilu ekarri zituzten, domeka eguerdian egin zuten dastatzean banatzeko.

50

Queimada ezaguna egiteko 50 litro orujo erabili zituzten. Zapatu eta domekan prestatu zuten edabea.

40

kilo gazta ipini zituzten dastatzean. Bi motatakoak: San Simon eta titi-gazta. Saldu ere asko saldu zen gazta.

MANUEL MOREIRAS | ANTOLAKUNTZA TALDEKOA

“Olagarroa eta txurraskoa ikaragarri saldu da aurten”

J. B.

Antolakuntza lanetan izerdi asko bota badute ere, pozik daude Moreiras eta lagunak aurten Galiziako jaiak izandako harrerarekin. Dastatzeak arrakasta itzela izan zuen.

Geratu ere ez zarete egin egubakoitza ezker; pozik jasotako erantzunarekin?

Azken orduko gorabehera batzuk salbu, oso ondo joan da dena, ederto ibili gara. Olagarroa eta okela txigortua (txurraskoa) ikaragarri saldu da, espero bezala. Ilunkeran hasi zen jendea gehien etortzen.

Horretaz gain, denetarik izan duzue dastatzean, ezta?

Muskuiluak, gozokiak, tartak eta batez ere gazta izan dira dastatzeko ipini ditugunak. Arrakasta handia enpanadillak izan du, eta, zelan ez, ardoak: albariñoa, ribeiroa, pattarra... **Aurreko urteetan baino jende gehiago ibili dela ematen du.**

Bai, agian bai. Kontua da badirela urte batzuk antolatzen ez genuela eta beharbada horregatik erakarri du hainbeste jende. Giro polita egon da, baina musika talde batek kale egin digu eta horrek zer edo zer kendu dio egunari.

Baina beste guztia behar bezala irten da. Nik, dastatzeaz gain, folk taldeen ikuskizunak ditut gogokoen, asko girotzen dute-eta.



J.B.

Urte askoan antolatu duzue eguna, baina urtetan ez duzue egin; zer dela eta?

Bederatzi bat urte egin dugu, baina 1999an geldialditxo egin eta ordutik hona ez dugu berriz ezer egin. Halako egunek aha-ahalekin eskatzen dute eta laguntza gutxi jaso ohi dugu. Nahiz eta jende askok parte hartzeko gogoia izan, lan egiteko orduan gutxi batzuk geratzen gara, eta lan handia da. Hori izan zen geldialditxo egiteko arrazoiatariko bat. Aurten Udalak asko lagundu digu, eta, hein handi baten, euren esker egin ahal izan dugu aurrera. Espero dut aurten berriz ere antolatuta, jendea animatzen hastea eta datozen urteetan ere egitea. Izan ere, ez daukagu talde finkorik, eta lagun artean antolatu dugu.



JOSETXO ARANTZABAL

MUSKUILUAK | O GROVETIK EKARRI ZITUZTEN | Domeka goizean muskuiluak dastatu zituzten. 70 kilo ekarri zituzten.



JOSETXO ARANTZABAL

TXURRASKOA | TXERRIKIETAN ERE AUKERA ZABALA | Jo eta su eduki zuten sukaldariek parrilla, txerriak prestatzeko.

ARANTZAZURA IBILALDIA | BAKEAREN BIDAIA KRISTAU EKINAK OTOITZEAN ETA EKINEAN IRAUN BEHAR DUTELA ESAN ZUEN GOTZAINAK



JOSETXO ARANTZABAL

Aurten ere milaka lagunek hartu dute parte Donostiako elizbarrutiak deitutako erromesaldian.

Su-etenak itxaropena ekarri du aurtengo erromesaldira

Bakea guztion artean sendotu behar dela adierazi zuen Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainak

Larraitx Zeberio

"Gaur, Arantzazurako bidean, pozak eta itxaropenak arindu ditu gure oinak". Horiexek izan ziren Donostiako gotzain Juan Maria Uriarteren lehenengo hitzak Arantzazuko otoitzaldian. "Badugu oraindik zer eskatu, baina baita zer eskertu ere. Bakebidearen lehen urratsak emanak daude".

Izan ere, ETaren su-eten iraunkorrek sentipen berezia piztu du aurten Donostiako elizbarrutiak Arantzazura urtero deitzen duen erromesaldian.

Eguraldia lagun, zapatuan milaka lagunek egin zituzten Oñatitik Arantzazurako bederati kilometroak. 09:30ean abiatu ziren erromesak Oñatitik eta 11:30ak pasatxo ziren erromesaldiaren burua Arantzazuko plazara iritsi zenean.

Aurten ere gonbidatu bereziak izan ditu erromesaldiak, hala nola: Baionako bikario nagusi Dominique Cornier eta Boliviako Beni eskualdean gotzaina den Manuel Egiguren. Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Miren Azkaratek ere lehenengo lerroetan egin zuen Arantzazurako igoera.

BAKE OSOA ETA BETEA

Benedikto XVI.a aita santuak esan berri dituen hitzak ekarri zituen gogora gotzainak bere hitzaldian. "Ezkortasuna alboraturik, itxaropena erakutsi digu. Herri osoari dei egiten digu bake hasi berriaren gorputza hazteraztera (...). Bake osoa eta betea nahi eta behar dugunez gero, ez diezaioyogun bakeari oztoporik jarri". Eta gizarteko eta politikako arduradunei zera eskatu zien: "Eraiki dezagun guztiok bakea guztiontzat".

Otoitz ekitaldi laburra baina sakona egin zuten Arantzazun erromesek. Aitagurearekin eman zioten hasiera otoitzaldiari eta ebanjelioa zein gotzainaren hitzak entzun ondoren Arantzazuko Amaren omenezko ereserkiarekin eman zioten amaiera aurtengo erromesaldiari.


• HORRELA BIZI DUTE ERROMESALDIA



MARI CARMEN | ANTZUOLA

"Azken sei urteetan etorri naiz Arantzazura, eta oso gustura, gainera"

"Antzuolako baina Donostian bizi naiz, eta handik etorri naiz autobusean. Azken sei urteetan beti etorri naiz. Oso gustura, gainera. Adinean aurrera goaz eta igoera gero eta gogorragoa egiten zaigu, baina aurten ere goraino iritsi naiz beste urte batez".



MARIA LUISA | DONOSTIA

"Bakearengatik eta fedearengatik etortzen naiz urtero Arantzazura"

"Bospasei urte dira erromesaldia etortzen naizela. Parrokiako autobusean egiten dut Oñatirako bidea eta gero oinez igotzen naiz Arantzazuraino. Garrantzitsua deritzot horrelako ekitaldietan parte hartzeari. Bakearengatik eta fedearengatik etortzen naiz".



MARI CARMEN, TXARO ETA ROSARIO | ERRENTERIA

"Antolatzaileen lana bikaina izaten da urtero; aurten bereziki ondo egin dugu Arantzazurako igoera"

"Zoragarria da elizbarrutiak urtero antolatzen duen erromesaldia. Bospasei urte dira etortzen garela. Aurten eguraldi zoragarria izan dugu, baina elurra eta kazkabarra ere bizi izan ditugu ibilaldi honetan. Antolakuntza benetan ona da. Jende asko etortzen da urteroa eta ez da inolako arazorik sortzen. Aurten, gainera, megafonia bereziki ondo entzuten zen. Oso gustura egin dugu igoera".

• ERROMESALDIAK UTZITAKO BESTELAKO IRUDIAK



PANKARTA BAKARRA. Besteak beste, Gipuzkoako gotzain Juan Maria Uriartek eta Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Miren Azkaratek eraman zuten *Kristau elkarteak berritzen* zioen pankarta. Milaka lagun izan zituzten bidelagun Arantzazurako igoeran.



OTOITZEAN. Otoitzean eta kantuan egin zuten Arantzazurako erromesaldia fededunek. Kantu-liburuxka bana jaso zuten Oñatin eta ibilbide osoan zehar jarritako 165 bozgorailuen bidez jarraitu zituzten otoitzen gidaritzan, Amaia Agirreren bertsoak zein Bitoriano Gandiagaren poemak.



MEZUA. Arantzazuko santutegiaren aurrean otoitz ekitaldi laburra baina sakona egin zuten erromesek. Gotzainaren mezua entzun ondoren Oñatiko bandako kide batzuek musikaren bidez erakutsi zuten bakegintzan zenbateraino den garrantzitsua guztion arteko harmonia.



BERANGO

DEKORAZIOA, SUKALDEAK

LOOS Q U A T R O
ALTZARI INTEGRALAK

Tel.: 943 79 01 92
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate

Muebles

4 URTE
interes barik

Kabía

Altzariak

Gipuzkoa etorbidea 23
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 27 70

ERAKUSKETA BERRIA





JOSETXO ARANTZABAL

Gaur egun erakuts daitekeen ganadurik hoberena ikusteko aukera egon zen zapatuan Bergaran.

ERRAMU ZAPATUKO FERIA BERGARAN | EUSKAL HERRIAN ZENTRATZEA ETA KANPOKO POSTU KOPURUA MURRIZTEA AZTERTZEN ARI DIRA

Azoka berrantolatzea pentsatzen dihardu Udalak, datorren urterako

Milaka lagun ibili ziren Bergaran zapatuan; hainbat taldek protesta egiteko ere aprobetxatu zuten

Monika Belastegi

Bergarako Erramu Zapatuko feriarekin arrakasta ukazina da. Milaka lagun ibili ziren herriko kaleetan barrena banatuta zeuden postuetan.

Goizeko 10etarako guztia prest zuten antolatzaileek. Artisauek Munibe eta San Martin plazan jarri zituzten eta Eusko Labeleko produktu eta jaki postuak San

Martin plazan eta Telesforo Monzon eta Domingo Irala kaleetan. Horrekin batera, talo eta pintxo postuak ere ugari izan ziren, Simon Arrietan eta Fraisko zurin batik bat.

Joseba Aizpurua Udaleko teknikariaren esanetan, urteekin batera handitzen joan da feria eta pentsatzen ari dira datorren urtean berrantolatzea: "Euskal Herriko ekoizleetan gehiago zentratu

nahi dugu eta kanpotik datozen postuen kopurua mugatu. Azken batean, feriarekin funtsa bertako lehen sektorea da eta gaur egun, horrekin loturarik ez duten hainbat saltzaile etortzen da". Hori kontuan izanda, eta Euskal Herriko ekoizleak nabarmentzeko asmoz, haien postuak herriaren erdigunean jarri izan dituzte orain arte, eta gainerakoak periferian.

Horren haritik, Hego Amerikako saltzaileekin izan zuten buruhausteren bat udaltzainek, erdigunean saltokia jartzeko baimenik ez zutelako batez ere. Saltokia feria gunearen periferian jartzeko aukera eman zieten arren,

Azoka datutan

• ABELGORRIA

Ibargarai kalean jarri zuten ganadua, ohi bezala. 80 bat abelburu izan ziren ikusgai. Horrez gain, askotariko beste 50 bat animalia ere egon zen ikusgai: oreinak, ardiak, ahuntzak eta kanguruak, esaterako. Hegaztirik ez.

• POSTUAK

Artisauek 60 bat egon ziren. Eusko Labeldun gaiak eta bertoko produktuena, berriz, 100 bat.

gunearen erdian jarri zituzten produktuak salgai, espaloi gainetan zabaldutako mantetan. Hala, handik kentzeko eskatu behar izan zioten goizean barrena bati baino gehiagori udaltzainek.

PRIMERAKO GANADUA

80 bat abelburu egon ziren ikusgai ferian; buru ederrak ziren, gaur egun erakuts daitezkeen onenatarikoak, Joseba Aizpuruaaren esanetan. Ohi bezala, pirenai, blonda eta limousina arrazako ganadua jarri zuten ikusgai Ibargarai kalean eta abelburuetako batzuen tamainak ikusmina sortu zuten.

• KONTUAN HARTZEKO OSAGAI UGARI IZAN ZITUEN AZOKAK



ARTISAUAK ETA JAKIAK. Artisauek askotarikoak ikusi ahal izan genituen. San Martin plazan ehoziri-lanak egiten zegoen emakume taldeak (irudian) ikusmin handia sortu zuen. Eusko Labeldun jakiak ugari izan ziren eta Luma Gorri oilaskoek ere jarri zuten saltokia.



TXORIMALO LEHIAKETA. Jardunek antolatzen du eta 34 taldek hartu zuten parte (185 lagun). 12 urtetik beherako en artean Bergaratarrak taldeak (irudian) irabazi zuten lehen saria; 12-65 urtekoen artean Zezenak taldeak eta 65etik gorakoetan, Mizpirualde egoitzako ordezkariak.



PROTESTALDIAK. Zine aretoa eskatzen duen taldeak bilkura egin zuten; baita Zabalotegi eta Boluko auzotarrek ere, Udalaren erantzunik jaso ez dutelako. 18/98+ taldeak bonu-laguntzak saldu zituzten eta Bergara Aurrera plataformak mariskada zozkatu: 4.666 izan zen zenbaki sariduna.

EKONOMIA | 2005EKO EMAITZAK AZTERTU ZITUZTEN EGUBAKOITZEAN, ETA URTE BIKAINA IZAN DELA AZALDU ZUTEN

Etxebizitzak zuzenean sustatzeko plana indartuko du Euskadiko Kutxak

27 etxebizitza proiektu sustatuko dituzte aurten; horrez gain, beste 24 bulego zabalduko dituzte

Monika Belastegi

Euskadiko Kutxako presidente Juan Mari Otaegik eta Juan Jose Arrieta zuzendari nagusiak 2005. ekitaldiaren emaitzak aztertu zituzten egubakoitzean. Biek hala biek ekitaldi "bikaina" izan dela azaldu zuten. 150,3 milioi euroko irabaziak izan dituzte 2005ean, aurreko urtean baino %17,5 gehiago.

Finantza jardueren artetik, mailegu bidezko inbertsioak "portaera ezin hobea" izan dela azaldu zuen Arrietak: %23,4 hazi zen eta kreditu mota guztiak %20 igo zirela gehitu zuen. Horien artean aipagarrienak izan ziren



Juan Mari Otaegi Euskadiko Kutxako presidentea eta Juan Jose Arrieta zuzendari nagusia prentsaurrekoan.

etxeko ekonomiari zuzendutako maileguak (%21,8), enpresei zuzendutakoak (%27) eta MCC-ko kooperatibei zuzendutakoak (%23,7).

2006RAKO AURREIKUSPENAK
Aurtengo aurreikuspenei dagokienez, Arrietak esan zuen "2005aren bidetik" joango dela

2006a eta helburuei dagokienez ere, etxeko ekonomia, enpresak eta hedapena izango direla. Interes tipoez gora egin arren merkatuei ez diela askorik eragingo

aurreratatu zuen, eta, hortaz, 2006rako bi digituko igoera aurreikusi dutela, nahiz eta aitortu zuen oraindik ere goiz dela zenbakiak aurreratzeko.

Etxebizitzak eta hedapena helburu

Euskadiko Kutxak 16 proiektu eta 4.144 etxebizitza sustatu zituen iaz. Eta etorkizunean ere bide horretan sakontzeko asmoa dutela azaldu zuten: 27 proiektu bultzatzea posible ikusten dute. Operazio horietan gehiengoa izango lukete Lagun Arorekin batera. Bestalde, 24 bulego zabalduko dituzte aurten; horietatik 18 Madrilan, Asturiasen, Kantabrian, Gaztela eta Leonen eta Aragoian.

Erosi 307* bat

Hila amaitu baino lehen, 11.840 eurotik aurrera duzu, eta 20 hazbeteko LCD telebista bat opari egingo dizugu, etxean ere disfruta dezazun



* 3 eta 5 atetako berlinak



PEUGEOT

ZIORLA AUTOAK

ARRASATE

Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE Tel: 943 77 01 44

GRUPO ETORMOBIL



Egunean hasi ziren autoligidazioak bidaltzen eta baiezkoa emateko epea etzi, eguaztena, hasiko da.

ARTXIBO

Ondarearen zerga behar bezala aitortzeko eskatu dute

Ogasunak dio gipuzkoarren bigarren etxebizitzaren berri duela; hilaren 24an hasi eta ekainaren 26an amaituko da kanpaina

M.B.

Ez da aldaketarik egongo aurten Gipuzkoako errenta kanpainan, Juan Jose Muxika Ogasun diputatuaren esanetan. Apirilaren 24an hasiko da eta ekainaren 26an bukatuko da, eta 352.000 laguni eragingo die. Horietatik hiru laurdenek itzultzeko aitortpenak izango dituzte (batez beste 1.008 euro) eta gainerakoek ordaintzekoak (1.521 euro).

Bestalde, Ogasunak aurreikusitako 37,89 milioi euro hartuko dituela.

Ogasun diputatuak kontuz ibiltzeko eta zerga behar bezala aitortzeko ere ohartarazi ditu herritarrik, "bigarren etxebizitzaren berri badugulako". 98.000 lagunek dute etxebizitza Gipuzkoatik kanpora: horietatik 52.000 pertsona fisikoek dagozkie eta 5.000 pertsona juridikoek (enpresak gehienbat).

Ondasun horien guztien balio katastrala 2.485 milioi euro da. Ogasunak halako datuak dituen lehenengo aldia da eta beste lurralde batzuetako ogasun sailekin egindako datu trukaketaren bidez eskuratu dituzte.

Autoligidazioari dagokionez, iaz baino %20 bidaliko dituzte; 143.058, hain justu, eta 181.858 laguni dagozkie. Egunean hasi ziren autoligidaziook bidaltzen eta baiezkoa emateko epea etzi, eguaztena, hasiko da. Hiru egunera bueltatuko dute dirua. Bestela, ordua hartzeko telefonoa da 902 10 00 40 eta webgunea, www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta/default.asp.

IRUZURRA TELEFONOZ

Badirudi errenta aitortpenaren harira iruzurra egiten ari direla egunotan telefono bidez. Zerga Agentziatik deitzen dutela esan eta errenta aitortpeneko datu batzuk behar dituztelako aitazkian kontu zenbakia eskatu eta iruzur egiten ari ei dira.

• OÑATIKO TXANTXIKU IKASTOLA

IKASTETXEAREN EGUNA OSPATZEKO EKITALDI UGARI ANTOLATU DUTE

Egubakoitzean hasi ziren Oñatiko Txantxiku ikastolakoak eskolaren egun handia ospatzen. Iru-dian, esaterako, Santa Ana antzokian ikasleek gurasoendako egin zuten ikuskizuna ikusten da. Baina ez dira hor bukatuko ospakizun ekitaldiak; izan ere, gaur, astelehena, English Theatre Companyk emanaldiak egingo ditu Santa Ana antzokian goizean eta eguerdian.

Biharko, berriz, hitzaldia antolatu dute DBHko 3. eta 4. mailako ikasleendako, 15:00etan, eskolako areto nagusian. Asisko Urmeneta izango dute hizlari eta landuko duen gaia izango da *Gazteen kale hizkera*.



JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

Bizikletak hartuta, tabernaz taberna eroan zituzten aldarrikapenak.

Poteoa bizikletan egin zuten gaztetxearen alde

J. B.

Iaz egin zuten bezala eta lortutako arrakasta errepikatu guran, *bizikleta-poteoa* egin zuten Oñatin, Gazte Asanbladak antolatuta. Herriko makina bat gazte bizikletak hartu eta herriko tabernetan zehar ibili zen zapatu eguerdian, gaztetxearen beharra aldarrikatzeko.

Eguerdiko hamabi eta erdie-tarako egin zuten hitzordua herriko plazan. Hoge bat gazte

hasi ziren poteoan, baina, iaz gertatu bezala, poliki-poliki jende gehiago animatzen hasi eta talde polita batu zuten tabernaz taberna joateko.

JAIA ETA ESKAERA

Asanbladakoek herritarrik gaztetxearen beharraz jabetzeko egiten dute aldarrikapen ekintza hori, ospakizuna eta protesta uztartzen dituen. Poteoarekin erdialdean hasi eta San Lorentzora joan ziren.

Ume minusbaliatuendako jolasparkea proposatu du EBk Arrasaten

M.B.

Arrasateko Ezker Batua-Berdeak taldeak ume minusbaliatuendako jolasparke esperimentalak egiteko proposatu dio Udalarari. Bartzelonako Udalak egindako halako jolasparkearen eredu jarraitu dute.

Elbarritasuna duten eta ez duten umeendako gunea izango litzateke. Hala, dio Ezker Batuak-Berdeak, "jolas egiteko aukera bera eskainiko genieke ume guztiei eta sozializazioa eta integrazioa bultzatu". Bestalde, hiri-altzariaren diseinuan irisgarritasunaren irizpidea kontuan

hartzen joateko modua ere bade-late diote.

EGOKITUTAKO JOLASAK

Jolasparkeak izango litzuzke, besteak beste: plataformadun txirrista, gurpildun aulkian dauden umeak ere igo ahal izateko; hainbat materialez egindako zorua, zabua, Braille sistemarekin jolas egiteko plafoia, gidatutako bidea itsuendako, xilofonoa eta mahaiko jokotarako mahaia.

Ezker Batua-Berdeak dienez, halako jolasparkeak 60.000 euro inguruko aurrekontua izango luke.

Labur

Onbide.org elkartekoak pozik lehen ekitaldiak jasotako erantzunarekin

Azpiegiturak kaltetutakoei laguntzeko sortu berri duten Onbide.org elkarteko kideak pozik eta eskertuta daude barikuan antolatu zuten pilota partiduak izandako erantzunarekin. Askotariko ekitaldiak antolatuko dituzte aurrerantzean; izan ere, horiez baliatuta AHT, autobide eta halako azpiegituren gainean informatu nahi dituzte herritarrik. Barikuan ere egin zuten hori, komunikatu bat irakurrita. Orain, jardunaldi batzuk antolatzen ari dira.

Albiste izango da

ESKORIATZA | JARDUNALDIK HILAREN 27AN ETA 28AN

Herri eskubideak eta mundu gobernazioa berbaigai HUHEZIn

Herri eskubideak, autodeterminazioa eta mundu gobernantza izeneko jardunaldiak antolatu ditu HUHEZIk. Apirilaren 27an eta 28an izango dira eta doan diren arren, derrigorrezkoa da izena ematea sarrera@huhezi.edu helbidean. Hiru dira jardunaldien helburuak: Euskal Herriko talaiatik, mundu gobernazioa eta botere banaketari hurbilpena eskaintzea, nazioarteko komunitatean, ez zentralak diren erakundeen parte-hartze politikoa eta eragiteko gaitasuna ezagutzeko eta gai horren gainean Euskal Herriko komunitate akademikoan zein sozialean interesa sustatzea.

DEBAGOIENA | IZENEMATEA ZABALIK DAGO

'Hiru haundixek hiru egunetan' irteera antolatu du AED elkarteak

Arrasateko AED elkarteak *Hiru haundixek hiru egunetan* irteera deitu du. Apirilaren 29an hasi eta maiatzaren 1era arte Aizkorri, Anboto eta Gorbeia mendiak igoko dituzte parte-hartzaileek. Izena emateko epea apirilaren 25era arte egongo da zabalik eta kon-tuan hartu behar da plaza mugatuak direla. Izena emateko jo AEDk Pablo Uranga 4an duen bulegora. Prezioari dagokionez, bazkide-ek 35 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 50.

Norberak eraman beharrekoak dira: aldatzeko arropa, linterna, lo zakua, esterila eta botak. Horrekin batera, apirilaren 30eko eta maiatzaren 1eko bazkarirako ogitartekoak ere norberak eraman beharko ditu. Baita apirilaren 29rako janaria ere.

BERGARA | LAN HITZARMENA DA ARRAZOIA

IATko langileek egun osoko greba egingo dute bihar eta etzi

Bergarako IAT-ITVko langileek greba egingo dute bihar eta etzi. 2006rako Lan Hitzarmena negoziatzen dihardute enpresako zuzendaritzarekin (Applus ITV Euskadi), eta adostasunera iritsi ez izana da mobilizazioon arrazoia.

Bi dira langileen eskari nagusiak: soldatari dagokionez, KPI gehi bi puntu igotzea eta lan jardunaren kasuan hamar ordu murriztea. Roberto Gomez langileen ordezkariaren esanetan, Irungo eta Urnie-tako IAT-ITVetako langileen baldintzekin parekatzea da Bergara-ko 18 langileen nahia. Han, astean 35 orduko lan jarduna dute eta urtean ia 1.000 euro gehiago kobratzen dute, Gomezek azaldutako-aren arabera. Martxo bukaeran hasi zituzten mobilizazioak: ordu-beteko lanuzteak egin zituzten 28an eta 30ean.

DEBAGOIENA | APIRILAREN 15ERA ARTE DA IZENEMATEA

Gutxituendako udako oporrak antolatu ditu Elkartu elkarteak

Gutxitu fisiko edo sentsorialendako oporrak antolatu ditu aurtengo udarako ere Elkartu elkarteak, Aldundiarekin batera. Benidorm, Salou, Galizia eta Tenerife dira aurtengo opor lekuak. 16 urtetik gorakoendako dira eta hainbat txanda antolatu dituzte, maiatzetik azarora bitartean. Interesa dutenek apirilaren 15a baino lehen eman behar dute izena udako opor horietarako. Bete beharreko orriak eta informazioa Udaletako Gizarte Zerbitzuan jaso daitezke. Betetako orriekin batera, minusbalotasun agiria eta diru sarreraren justifikazioa ere aurkeztu behar dira.

BERGARA | BIHAR ARRATSALDERAKO ZABALDUKO DUTE

Itxita egongo da gaur kiroldegiko kantxa, konponketa lanengatik

Labegaraietako kiroldegiko barruko kantxa konponketa beharrean dago. Gaur, astelehena, egingo dituzte lanok, Udaleko Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez, eta, ondorioz, ezingo da egun osoan erabili. Kirol Zerbitzutik aurreratutakoak, bihar, martitzena, egongo da berriz erabiltzeko moduan, betiere arratsalde; izan ere, goizez ezin izango da erabili.

Egokitze lanok barruko kantxari baino ez diote eragingo; hortaz, Labegaraieta kiroldegiaren gainerako zerbitzuek normaltasunez funtzionatuko dutela ohartarazi dute Udaleko Kirol Zerbitzutik.

Hitzorduek



ARRASATE-OÑATI PROBAN LAN EGITEKO JENDEA BEHAR DUTE | Bidea adierazteko eta zirkulazioa zaintzeko lagunen premia dago

Laixan elkarteak 24. Arrasate-Oñati lasterketarako deialdia egin du, baina baita antolatzen laguntzeko beste bat ere: hain zuzen, Arrasatetik Oñatira dauden bidegurutzetako eta bihurguneetako bidea adierazten eta zirkulazioa zaintzen laguntzeko gertu dagoen jendea behar dute. Hori egin gura dutene-
nek 943 71 63 11 telefonora deitu behar dute lehenbailehen, lasterketa maiatzaren 6an delako.

Azken bi urteetan, lan hori egiteko oso jende gutxi egon da, eta Laixanek ohartarazten du horrela jarraituz gero ezingo dutela antolaketa bere gain hartu eta lasterketa galdu egin daitekeela.

ARETXABALETAKO

• Umea bataiatu behar duten gurasoekin batzarra

Hilaren 15ean edo 23an umea bataiatu behar duten gurasoekin batzarra egingo dute astelehenean eta martitzenean, parrokiako lokaletan, 19:00etan.

• Denetarikoko ekintzak

antolatu dituzte Atxagazten Honako egitaraua dute: bitxi tailerra (hilak 18), frontonisa (19), ginkana eta merienda handia (20), skate ikastaroa (21), Deba-Zumaia irteera eta argazki rallya (22) eta ekintza libre (23).

• **Elkarteko adiskidetzeko edo penitentzia sakramentua** Sakramentu hori ospatuko dute gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, parrokiatik, 19:00etan.

ARRASATE

• Gazte Txokoetan, egun bakoitzerako ekintza bat

Honako ekintzak egingo dituzte Gazte Txokoetan: bizikleta martxa Urkulura (apirilak 19; AEDn batuko dira 10:30ean), hankapalu ikastaroa (hilak 20) eta futbito txapelketa Iturripen; gero, afari-merienda eta zinema (hilak 21).

• Gastronomiaren elkartearen arteko doke txapelketa

Txapelketa hori jokatu dute egubakoitzean, hilak 14, Kondekuan, Monterron parkearen ondoan, 10:00etan.

BERGARA

• **Gaztetxoaren arteko olinpiadetan izenemate epea** Gaztetxoaren arteko olinpiadetan izena eman dezakete LHko 4., 5. eta 6. mailako ikasleek ikastetxeetan edo Jardunen maiatzaren 5era arte.

• Udaleku irekietan begirale izateko izenemate epea

Udaleku irekiak antolatzen ari da Udala uztaileko, eta begirale izateko gertu dagoen jendeak laguntzeko eman behar du izena eguna baino lehen.

ELGETA

• Pintxo eta kazuelatxoaren ikastaroa maiatzean

Ikastaro hori antolatu du Udalak maiatzaren 3tik 29rako. Izenemate epea, udaletxean.

ESKORIATZA

• **Elkarteko adiskidetzeko edo penitentzia sakramentua** Sakramentu hori ospatuko dute gaur, astelehena, parrokiatik, 19:00etan. Batuko den dirua Oaxacako herri bati laguntzeko izango da.

• Udaleku irekietan begirale izateko izenemate epea

Udaleku irekiak antolatu ditu Udalak uztailearen 4tik 21erako, eta begirale izan gura dutenek Gazteria Zerbitzuan edo ludotekan aurkeztu behar dute curriculuma apirilaren 27a baino lehen.

• Bizikleta irteera egingo dute Gazte Lekuko gazteek

Apirilaren 22an eta 23an, Urkulura bizikleta irteera egiteko aukera dute Gazte Lekuko erabiltzaileek. Bestalde, hilaren 29an txalaparta ikastaroa hasiko da han.

• Oporretarako saio bereziak antolatu dituzte ludotekan

Honako saio bereziak antolatu dituzte: etxeko jostailuekin aritzeko jolasak (apirilak 18), gozokiarekin markoak egitea (apirilak 19), film emanaldia (apirilak 20) eta elur-pote magikoak (apirilak 21). Orduetgia 11:30-13:30 izango da.

OÑATI

• 76ko kintoek 50. urteurrena ospatzeko afaria

76ko kintoek, 56an jaiotakoek, afaria egingo dute ekainaren 3an, aurtun betetzen dituzten 50 urteak merezi duen bezala ospatzeko. Aldez aurretik izena eman behar da Umerez tabernan, 20 euro jarrita.

• Gazteen kale hizkeraren gaineko hitzaldia

Gazteen kale hizkeraren gaineko hitzaldia egingo du Asisko Urmeneta komikigileak bihar, martitzena, ikastolan, 15:00etan. DBHko 3. eta 4. mailakoendako eta Batxilergokoendako hitzaldia da. Txantxiku Ikastolaren Eguneko ospakizunetako bat da.

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Noiz arte Epeleko lanak sufritzen?

Gure irakurle batek txistua bidali digu, bere ustez Epeleko lanak gehiegi luzatzen ari direlako: "Noiz arte luzatuko dira lanok? Uztailan hasi ziren eta orduz geroztik asko gara egunero bide zati horretan sortzen diren auto pilaketak sufritzen ditugunak. Lanok gehiegi atzeratu dira. Gainera, kaskarra da benetan aldaketak adierazteko jartzen dituzten seinaleak. Egunetik egunera aldaketak egoten dira trazatu horretan eta ezuste bat baino gehiago izan dut, behar den moduko seinaleak jartzen ez dituztelako".

• Lan txukuna egin zuten Valentziaga lasterketako antolatzaileek

Ondorengo irakurleak joan zen astean Debagoienetik igaro zen txirrindularitza lasterketako antolatzaileendako bidali digu txaloa: "Valentziaga Memoriala txirrindulari lasterketa igaro zen joan zen astean gure ibarretik. Ibilbidean zehar hainbat kartel jarri zituzten, baita lasterketa pasa ondoren guztiak modu txukunean kendu ere. Ez dute guztiek horrela egiten. Zorionak!".

• Euskara Bergarako anbulatorioan

Beste irakurle batek ere txistua bidali digu, Bergarako anbulatorioan gaztelera hutsezko oharrak irakurri dituelako. "Aspaldiko partez, egunean joan nintzen Bergarako anbulatorioa eta konturatu nintzen euskarari garrantzi txikia ematen diotela osasun zentro horretan. Panel ofizialetan bi hizkuntzak agertzen dira, baina probisionalki jartzen dituzten oharrak gaztelera hutsean jartzen dituzte. *Averiado eta Fuera de servicio* irakurri nituen emakumezkoen komunaren atean. Emaginaren eskolak bertan behera gelditzen zirela ere gaztelera hutsean jakinarazten zuten".

Sarean harrapatuta

Izango zinateke berbalagun?

Zahar-Berri Arrasaten eta Berriketan Bergaran. Bi egitasmo horiekin euskaldun zahar eta berrien arteko harremana sakontzea da helburua; hala, euskara ikasten ari direnek eskolatik kanpo euskaraz egin

dezaten. Horretarako behar izaten dituzte berbalagunak, kafetxo bat hartzen dauden bitartean ikasleek euskara praktikatzeko. Eztabaida hori jarri dute *Goiena.net*-en. Hemen dituzue jaso ditugun iritzi batzuk.

EGUNEROKOAN ERABILI BEHAR DA EUSKARA

Ni izango nintzateke berbalaguna. Hala, nik euskaraz erakustez gain eta beste pertsonak euskaraz ikasi, lagunak egiteko bide polita dela uste dut. Euskara ondo ikasteko garrantzitsua da eskola orduetatik kanpo hitz egitea eta erabiltzea. Hizkuntza baten gramatika eta teoria ikasi daiteke, baina benetan hizkuntza menderatzeko erabili egin behar da. Horregatik garrantzitsua da egunerokotasunean euskara erabiltzea.

Berbalaguna / www.goiena.net

EZEZAGUN BATEKIN ELKARTZEA ZAILA DA

Ni guztiz ados nago lehenengorekin. Hizkuntza bat erabili egin behar da ondo ikasteko. Erabili egin behar da, baita ere, hizkuntza zabaldu dadin eta indarra hartu dezan. Nik ondo ikusten dut berbalagunaren figura. Hala ere, nahiko zaila ikusten dut ezezagun batekin kafetxo bat harztearen ideia. Agian ezagunen artean elkartzeko dira, baina ezagutzen ez direnen artean...

euskara / www.goiena.net

BERBALAGUN IZATEKO PREST NAGO

Ni ere izango nintzateke berbalaguna. Euskarari bultzada bat

HIZTEGIA LANTZEKO MODU EGOKIA DA

Euskaldun berria naiz eta gramatika eta teoria dominatzen ditudan arren, hiztegia falta zait. Baita hitz egiteko erraztasuna ere. Horregatik ondo datorkit euskaldun batekin hitz egitea. Zorionez nire lagun asko euskaldun zaharrak dira eta haiekin askotan geratzen naiz kalera irteteko.

Nik zortea daukat eta beraz euskara praktikatu dezaket. Hala ere, giro euskaldun batean jaio ez denak ez ditu euskaldun zaharrak diren lagun asko (gehienean) eta berbalagun bat ondo datorkie euskara praktikatzeko.

berri / www.goiena.net

za izango hasieran, baina euskararen alde hori eta gehiago egiteko prest egon behar dugu, alperrik gabiltza bestela! Berbalagunen ekimena oso egoki ikusten dut euskarari dagokion bultzada emateko.

Itziar / www.goiena.net

EUSKALDUN BERRIEKIN EUSKARAZ EGITEN DUT

Oso ideia ona iruditzen zait berbalagunen ekimen hori. Neuk lagun artean badauzkat euskara ikasten dabiltzan batzuk eta ahalgintzen naiz eurei euskaraz egiten, eurek ere lotsa kendu eta ohi-tura hartu dezaten. Bestela, zoritarrez, aspaldian denbora gutxi daukat niretzako eta ezingo nuke hitza eman. Espero dut aurrerantzean berbalagun talde baten esku hartzea.

Josune / www.goiena.net

EUSKARA BULTZATZEKO EKIMEN ONAK DIRA

Gora euskara!! Nik ere halaxe uste dut. Euskarari bultzada eta indarra emateko ekintza paregabea dela uste dut. Zorionak beraz Zahar Berri eta Berriketan taldekoei. Ea ekimen honekin euskara finkatzen dugun. Euskaldun berrientzako aukera bikaina da benetan. Zorionak eta zorte on guztioi!

Gora euskara / www.goiena.net


Halaxe erantzun digute

Osakidetzako txartela erakutsi beharko dugu errezetarekin botikak erosterako. Zer deritzozu?



IÑIGO ZABALA |
FARMAZIALARIA BERGARAN

Jendea txartelarekin etortzen da botikara. Gehienak ohituta gaudela txartela gainean eramatera. Arau berriarekin Osakidetzak ziurtatu nahi duena da medikuak gaixo bati agindutako botikak pertsona horrek hartuko dituela. Ez dut uste aparteko arazorik sortuko duenik.



IÑAKI URGOITIA |
OSAKIDETZAKO SENDAGILEA

Botikak erosteko txartela erakutsi beharrak ez du nire kontsultan aldaketa handirik eragin. Elgetan egiten dut lan eta herri txikia denez egoera berezia da. Egia da ohi baino gehiagotan agertu direla txartelok kontsultan, baina pazienteen artean neurri berriak ez du kezkarik eragin.



JOSE RIVIERE |
ABAROA ELKARTEKO IDAZKARIA

Neurria begi onez ikusten dut. Botikekin kontrol minimo bat eramatea ezin daiteke txarra izan. Argi dago ezaguna zaren lekuan ez direla egunero txartela eskatzen ibiliko. Gure elkartearen, behintzat, neurriak ez du aparteko komentariarik eragin. Normaltasun osoz hartu dugu.



HIART BILBAO |
FARMAZIALARIA ARRASATEN

Jendea informatuta dago, txartela eskuan duela etortzen da farmaziara. Nire iritziz, neurria txartela erabiltzeko ohi-tura har dezagun ezarri dute. Errezeta elektronikorantz goaz, eta orduan ezinbestekoa izango da Osakidetzako txartela erakustea. Ez dut uste iruzurrak ekiditeko neurria denik.

Egunkarietako harribitziak

LEHENENGO URRUTIKO KONTROLA

Duela mende bat Leonardo Torres Quevedo ingeniariak lehenengo urrutiko kontrola frogatu zuen Bilboko itsasadarrean. Txalupa bat mugitzeko urrutiko kontrola zen hura: 19 mugimendu eginarazten zituen. Ingeniariak *mugimenduen translatoarea* deitu zion asmakizunari.

'El Diario Vasco'
2006-04-09



ORAINGO BIDEARI EUTSIKO DIO KONTSEILUAK

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua osatzen duten 45 bazkideek urteko batzar nagusia egin zuten atzo Nafarroan, Zizur Txikia herrian. Batzarrean, 2005eko balantzea plazaratu zuten eta 2006ko kudeaketa plana eta aurrekontua onartu zituzten. Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak azaldu zuenez, "orain arteko bidetik aurrera

egingo du Kontseiluak, euskararen normalizazioan aurrera egiteko". Iaz egindako bidea oso ontzat jo zuten. Bai Euskarari Ziurtagiriak lortutako hazkunde nabarmendu zuten bereziki. Era berean, ziurtagiriak bultzada nabarmena behar duela azaldu zuten eta horretarako elkarte autonomo bat sortuko dutela aurreratu zuten.

'Berria'
2006-04-09



Tira, tira...



Peli 'Berria' | 2006-IV-09

Egunkarietan irakurri dugu

'Berria'

AHOTSAK EMAKUME TALDEAREN AGIRIA

"Agiri hau sinatzen dugunok ideologia, tradizio eta sentimendu ezberdinak ditugun emakumeak gara; banatzen gaituena alde batera utzi eta batzen gaituenetik abiatuta, eta modu pertsonalean, bake eta adiskidetzaren bila urratsak esploratu nahi ditugu. Gure asmoa da bakoitza dagoen lektutik egungo egoerari bultzada ematea".

Ahotsak
2006-06-09

'El Mundo'

EUSKAL SOZIALISMOAREN ARIMAK

Gaurko argazkiek agerian lagatzen dute PSEn betidanik egon diren bi arimak. Rosa Diez edo Maite Pagaza Basta Ya-kokideen ondoan agertzeak kezkarik sortzen ez duen bezala, samina eragiten du Gemma Zabaleta ia besarkatuta agertu izanak biolentzia gaitzetsi ez duen talde baten ordezkariarekin.

Editoriala
2006-04-09

'Gara'

ALDERDIEN MAHAIAREN OINARRIA

Protagonismoa ez denez berdina, alderdi politikoek eta sindikatuek senti dezakete halako mugimenduek ez dituztela konprometitzen gizonek sinatutakoak balira bezala; argudia dezakete "emakumeen gauza direla". Baina agerian geratu da historian zehar emakumeek jarrera hobe dutela oztopo sektarioak gainditzeko ongizatearen alde.

Editoriala
2006-04-09

'Deia'

TALDE EKIMENA

Mesprekuz hartu du erabakia PPK, baina datozen garaietan gune komunak beharrezkoak badira, halako zeharkako ekimenak dira elkarriketa kultura ezar ditza ketenak. Era beran, ezinbesteko aitortpen dira datorren eginkizuna bikoitza eta kontsekitibo dela jabetzeko: baketze eta normalizazio politikoa, hain justu.

Editoriala
2006-04-09

Zorroztalea

Belarrien bistan



Cesar Antonio Molinak isiltasunaren laudorioa egin, hain eskas zarataz beteriko mundu honetan, eta Institutuko irakasle zebilela izandako porrot nolabaitekoa aitortu zuen, bere ikasleek ez baitzituzten ezinbesteko libururak irakurtzen. "Uste dut haien interes faltaren arrazoiak denbora edo dirua baino sotilagoak zirela, hau da: isiltasunik eta bakardaderik eza."

Cruz V. Vazquez

'El País' | 2006-04-07

bada esatea- enpresa multinazional baten kalkulu xuhurra, milaka jenderen bizimoduak bat-batean krak egiteko). Baina ez da fede kontua sinestea -neurri batean- posible dela planto egitea.

Ezagun berri batekin hizketan ari nintzela, gehienbat poesia idazten dudala jakin zuenean, xalo-xalo galdetu zidan: "Baina genero hori ez al dago garaiz kanpo, ez al du hartzaile gutxiegi?". Ahal bezain goxo erantzun nion: "baliteke; orduan, opera, antzerki, musika klasiko, baletaren antzera...". Ez bainintzen ausartu egia, nire egia, aitortzera:

Itunkera alfer nagian, / zer egin zehatz jakin ezik, / telebista pizten dut. Boza / kentzen diot, gero distira, laster kolore-contrasteak. // Lauki ilun haren parean, / ikusirik halako jeinu, / teknika eta elektrika / xahutze alferrikakoa, // hamaikagarrenez hartzen dut / poema liburu zaharren bat, / eta gauaren etorrera / leunagoa izaten da.

Gerardo Markuleta

Gurata ala gura barik, begien (eta belarrien) bistakoa da gure eguneroko bizimodua pittinkapittinka eraldatuz doala, gero eta gehiago kanpoko eraginek birmoldatua. Onartu beharra dago -alfer-alferrik da ezikusiarrena egitea- gizakion bizimoduan etengabeko aldatze hori bera dela aldatzen ez den gauza bakararra. Sinestarazi nahi digute, ordea, eraldatze hori beti zentzu berean gertatzen dela: beti onerako, aurrerakuntzaren (progresorearen) indarrez, beti hoberuntz. (Espazioan edo denboran jauzi txiki bat egitea nahikoa, ordea, planteamendu horren faltsukeriaz ohartzeko. Nahikoa, eta egunero ikusten ari garen gauza da, presidente inperial baten erabakia edo -are lotsagabeago, eta

"Onartu beharra dago gizakion bizimoduan etengabeko aldatze hori bera dela aldatzen ez den gauza bakararra"

"Sinestarazi nahi digute, ordea, eraldatze hori beti zentzu berean gertatzen dela: beti onerako, beti hoberuntz"

KIROLA

- Eskubaloian, Bergarak lidertza eskuratu du Urolari 27-21 irabaziz | 18
- Zapatuan, Elgetako Udal pilotalekuaren inaugurazioa izan zen | 21



Amaia Doyague
arrasatearrarekin
jardun dugu
arraunaren
munduari buruz | 16

PREFERENTE MAILA

MONDRA

5-2

ALLERRU

Mondra | Ander, Loiti (Arkaitz, 69. min.), Illart, Markel, Laspiur, Ruben (Argider, 74. min.), Altzola (Muxi, 65. min.), Zubikarai, Murua, Keixi (Ekain, 65. min.) eta Lopez (Gotzon, 65. min.).

Allerru | Mikel, Aitor (Unai, 69. min.), Joseba, Asier, Jon (Iñigo, 69. min.), Iñaki, Xabier (Daniel, 56. min.), Ibai, Azkona (Julen, 60. min.), Haritz eta Yagoa (Nasir, 56. min.).

Golak: 1-0. Murua (6. min.), 2-0: Murua (59. min.), 3-0. Lopez (62. min.), 4-0 Murua (84. min.), 4-1. Haritz (85. min.), 4-2 Iñigo (86. min.), 5-2. Laspiur (90. min.).

Epailea | Berasategi jauna. Partidu erraza izan zuen epaileak. Marrazainek, hala ere, huts dezente egin zituzten.

Bestelakoak | Eguraldi polita egin zuen zapatuan Atxabalpen. Jende asko hurbildu zen partidua ikustera.

Bikain

Hasierako 20 minutuak

Lehenengo zatian goitik behera izan zen nagusi Arrasateko taldea, aukera asko eginda. Baina bereziki hasierako 20 minutuetan oso ongi jokatu zuen.

Kaskar

Allerruren lehenengo gola

Laugarren golarekin partidua erabakita zegoela ematen zuenean, etxeko atezainak egindako hutsari esker Allerruk lehen gola egin zuen: baloiak ihes egin zion eskuetatik atezainari.

Esandakoak

"Partidua guk uste baino zailagoa izan da. Baloia mantentzea kosta egin zaigu, Allerruk ondo presionatu gaituelako".

"4-2koarekin ez dugu emaitza arriskuan ikusi; denbora laburra zuen Allerruk berdinketa lortzeko, penaltia huts egin arren".

ANDER LASPIUR |
MONDRAKO JOKALARIA



JOSETXO ARANTZABAL

Jon Altzolak lan polita egin zuen zelai erdian eta Jon Muruak hiru gol egin zituen zapatuko partiduan.

FUTBOLA | ASPALDIKO PARTEZ GOLAK IZAN ZIREN ATXABALPEN

Etxean irabazten badakiela erakutsi zuen Mondrak

Azken partiduetan ez bezala gol asko izan ziren Atxabalpen zapatuan: Murua (3), Lopez eta Laspiur izan ziren Mondraren golegileak

Mireia Bikuña

Etxeko azken partiduetan garai-penek ihes egin ondoren, Mondrak erakutsi zuen Atxabalpen ere badakiela partidua irabazten eta golak egiten. Zapatuko partiduan zazpi gol izan ziren.

GOLA, BEREHALA

Partidua oso ondo hasi zen Mondrarentzat, bi taldeak zelaian kokatu orduko Muruak lehen gola egin baitzuen atezaina gainetik menderatuta; 6. minutua zen.

Markagailuan aurretik zela Arrasateko taldea lasaitu egin zen. Oso ondo jokatu zuen hasierako 20 minutuetan. Allerruri, aldiz, asko kosta zitzaion Mondraren areara iristea. Lehen jaurtiketa 20. minutuan egin zuen Lezoko taldeak.

Mondrak gol gehiago egiteko aukera garbiak izan zituen lehenengo zatian. Rubenek bi izan zituen, aukera batean errematea atezainak geratu zuen eta bigarrenean, berriz, bolea indartsua kanpora bota zuen. Lehen zatian

Mondrako entrenatzaile eta zaleek asko protestatu zuten marrazainek adierazitako jokoz kanpoko batzuk. Atsedendian, horrenbestez, Mondra zen aurretik markagailuan.

Ordiziaren kontrako atzeratutako partidua apirilaren 13an jokatu da

Realak eta Osasunak gazte mailako partidua jokatu dute domekan

ERRITMOA JAITSI EGIN ZUTEN ARRASATEARREK

Bigarren zatian Mondrak partiduen kontrolari eutsi zion, baina erritmoa asko jaitsi zen. Mondrak gol aukera gutxiago izan zituen, baina izandakoak aprobetxatu egin zituen. Partidua amaitzeko sei minutu falta zirela 4-0 aurreratu ziren etxekoak Muruak bi gol eta Lopezekbat egin eta gero.

Partidua erabakita zegoela ematen zuenean, baina, Allerruk bi gol egin zituen bi minututan. Lehenengo golean Mondrako atezainari baloiak esku artetik ihes egin zion. Lezoko taldeak, gainera, penalti bat izan zuen alde. Baina penalti jaurtiketa huts egin eta kontraerasoan Laspiurrek Mondraren bosgarren gola egin zuen.

PREFERENTE MAILA



ARTXIBOA

Aloñak etxeko partiduetan ez du hutsik egiten; beharrezkoak ditu geratzen diren bederatzita puntuak.

Tamalez, epailea izan zen partiduko protagonista

HERNANI

4-3

ALOÑA MENDI

Arantzazu Ezkibel

“Gure zoritxarrerako, epailea izan da partiduko protagonista”, esan zigun, haserre, Aitor Orue eta Aloñako entrenatzaileak.

Denboraldiko azken txanpan gauzak aldrebesten hasi zaizkio preferenteko liderrari. Zapatuan, Hernanin, 4-3 galdu zuten oñatiarrek eta sailkapenean biga-

rren den Real Unionekek alde hiru puntu murriztu dute.

ALOÑAKO BI KALERATUAK

Partidua txarto hasi zen Aloñarentzat. Balo luze batean, atezainari egindako falta ez zuen ikusi epaileak eta atea hutsik zuela 1-0ekoa egin zuen Hernanik. 20. minutuan, Jokin Garai egotzi egin zuen epaileak. Atsedeneren ostean, Aloña gogotsu zelairatu zen. Baloia jabe egin ziren oñatiarrek eta arrisku handia sortu zuten. Baina jokaldi batean, Aitor Lopezek baloia motz eman zion atezainari eta aurkariak bigarren gola egiteko aprobetxatu zuten.

Markagailua kontra izan arren, Aloñako mutilak ez ziren

kikildu. Iban Astolak eta Jon Igar-tuak partidua berdindu zuten.

Hernanik aurre hartzea lortu zuen hurrengo jokaldi batean. Eta norgehiagokan izandako gorabeheren ondorioz, epaileak bost minutu luzatu zuen partidua. Luzapenean, Iker Olalde, buruz, berdinketa lortu zuen. Eta partidua puntu banaketarekin amaituko zela ematen zuenean, Hernanik laugarren gola egin zuen.

AZKOAGAINEN INDARTSU

“Etxean guk izan behar dugu nagusi eta bederatzita puntuek etxean geratu behar dute”, esan zigun Aitorrek. Horretarako, Azkoagainera hurbiltzen diren zaleen laguntza ezinbestekoa izango da.

Luzapeneko minutuetan egin zuen UDAk gola

IRUN 1902

2-1

UDA

Mireia Bikuña

Gutxienez puntu bat lortzeko aukera izan zuen UDAk zapatuko partiduan. Baina azkenean esku-hutsik itzuli zen Irunera egindako bidaiatik.

Lehenengo gola partiduko 20. minutuan lortu zuten etxekoek. Bigarrena, berriz, 78. minutuan. Golaren aurretik, baina, UDAk berdinketa egiteko aukera garbia izan zuen: Igartuaren baloiak langa jo zuen. Hala, aretxabale-tarren gola luzapeneko minutuetan egin zuen Arriagak.

EPAILEAREN LANA

Ez zuten gustura bukatu UDAko ordezkariak epaileak egindako lanarekin. “Falta gogorrek ez ditu modu berean zigortu”, esan zigun UDAko delegatu Fitok.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK

Mondra-Allerru	5-2
Berio-Zestoa	0-1
Irun 1902-UDA	2-1
Anaitasuna-Touring	7-1
Hondarribia-Pasaia	0-0
Trintxerpe-Orioko	5-0
Hernani-Aloña MeNdi	4-3
Zarautz-Idiazabal	3-0
Ordizia-Beti Gazte	1-3
Mutriku-Real Union	0-1

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1.Aloña Mendi	67	32	21	7	4	65	37
2.Real Union	64	32	20	8	4	67	34
3.UDA	59	32	17	7	8	56	30
4.Zarautz	57	32	16	7	9	62	35
5.Ordizia	56	31	18	11	2	55	40
6.Pasaia	50	32	12	6	14	57	42
7.Trintxerpe	50	32	15	12	5	55	46
8.Mutriku	48	32	14	12	6	42	42
9.Hondarribia	47	32	13	11	8	40	47
10.Mondra	46	31	13	11	7	46	32
11.Touring	45	32	12	11	9	43	46
12.Hernani	44	32	12	12	8	45	48
13.Anaitasuna	39	32	11	15	6	47	44
14.Berio	38	32	10	14	8	44	49
15.Irun 1902	35	32	9	15	8	42	59
16.Idiazabal	33	32	8	15	9	32	51
17.Zestoa	33	32	8	15	9	34	52
18.Orioko	26	32	5	16	11	39	76
19.Beti Gazte	23	32	4	17	11	37	58
20.Allerru	20	32	4	20	8	31	71

HURRENGOAK

Real Union-Mondra
Allerru-Berio
Zestoa-Irun 1902
UDA-Anaitasuna
Touring-Hondarribia
Pasaia-Trintxerpe
Orioko-Hernani
Aloña Mendi-Zarautz
Idiazabal-Ordizia
Beti Gazte-Mutriku

Lehenengo erregionala

Urrezko hiru puntu galdu zituen Bergarak zapatuan

UROLA

2-1

BERGARA

Arantzazu Ezkibel

Bergarak liderraren aurka garrantzi handiko hiru puntu galdu zituen zapatuan. Mahone-roak gehiago izan ziren Argixao futbol zelaian. Baina joko hobea egin zuten arren, epaileak har-

tutako erabakiek asko kaltetu zuten Bergarako taldea. Horrela, Josu Zubia Bergarako entrenatzailea kexu zen epaileak izandako jarrerarekin. Hark Urolaren alde egin zuela adierazi zigun Josuk, eta horrela ezinezkoa dela partidurik irabaztea.

CANASEK PENALTIZ EGIN ZUEN BERGARAREN GOLA

Partidu hasiera polita egin zuten bergararrek. Jokoan etxeko taldea baino gehiago izan ziren eta arrisku handiko jokaldiak sortu zituzten. Horrela, Bergarak egindako kontraeraso batean, Urola-

ko atzelariak falta egin zuten. David Canasek hartu zuen baloia jaurtitzeko ardura eta ez zuen hutsik egin.

Atsedenera Bergara aurretik iritsi zen. Bigarren zatian, baina, gauzak txarto jarri ziren Bergararentzat: 10. minutuan, Urolak partidua berdindu zuen. Bergarako jokalariek atezainari egindako falta eskatu zuten, baina epaileak ez zuen ezer adierazi. Urolaren bigarren gola ere falta bidez izan zen.

Azkenean, partidua 10 minutu lehenago eman zuen bukatutaz epaileak, Bergararen kalterako.

Nesken igoera txapelketa



JOSETXO ARANTZABAL

BERGARAK 2-1 IRABAZI ZION ANAITASUNARI

Lesioak direla-eta jokalaririk gutxiarekin dabil Bergara; hala ere, atzo irabazi egin zuen. Ipintzan jokaturako partiduan, 2-1 nagusitu ziren mahone-roak Iزارo Larrañagak egindako golei esker. Lehenengo zatian ez zen golik izan Bergarako futbol zelaian. Bigarrenean, 2-0 aurreratu ziren etxekoak, baina Anaitasunak alde murriztea lortu zuen.

Eskola kirola

LEINTZ IBARRA

"Jolas bidez azaltzen dizkigute errugbiaren nondik norakoak"

Leintz ibarreko gaztetxoek hainbat kirol eta jokotan jardun zuten zapatuan

Besteak beste, errugbiaren sekretuak ikasi zituzten Musakolako kiroldegian

Zapatukoa izan zen azken jardunaldia hiru asteko oporraldiaren aurretik

Geaxi Ezpeleta

Arrasateko Musakola kiroldegian errugbi taldekoen gidaritzapean zebiltzan neska-mutikoekin egon ginen zapatu goizean. Euren hitzetan, "gogoko dugu elkartekoak gugana etortzea, jatorrak direlako eta ondo azaltzen dutelako". Errugbia urrun samar geratzen zaien kirola izaki, dakitenen gidaritzapean jardutea positibotzat jotzen dute gaztetxoek. Zapatuan begi-bistakoa zen, gainera, ondo pasatzen ari zirela.

Arduradunen hitzetan, kirol elkarte batzuk asko inplikatzeko dira gaztetxoekin. Errugbi elkartekoek, esate baterako, monitoreak bidaltzeaz gain, hamarretakoa eramaten diete neska-mutikoei. Zapatuan ere gogoz heldu zituzten gaztetxoek ogitartekoak.

JARDUERA UGARI

Nagusiek errugbiaren inguruko jolasak egiten zituzten bitartean, gaztetxoagoek beste hainbat ekin-tza egin zituzten. Laugarren mailakoek atletismoan eta hirugarren mailakoek esku pilotan jardun zuten. Eta Arrasateko gaztetxoenen kasuan, *altxoraren bila* ibili ziren.

Zapatukoa izan zen oporren aurreko azken jardunaldia Leintz ibarrean. Hurrengo hiru asteetan jai izango dute gaztetxo eta monitoreek.



GEAXI EZPELETA

Almen. Nerea, Mirian, Ane, Ainhoa, Ayala eta Sinead hurbildu ziren talde horretatik zapatuko jardunaldira.



GEAXI EZPELETA

Hainbat talde. Uxue, Jone, Josu, Gaizka, Odei, Ander, Aitzol, Asier, Janire eta Haritz.



GEAXI EZPELETA

Gazteluondo 6B. Ane, Itziar, Miren, Arrate, Irene, Eider, Ilargi, Alaitz, Ainhoa, Garazi eta Nahia.



GEAXI EZPELETA

Hainbat talde. Sara, Uxue, Leire, Maialen, Nerea, June, Eñaut, Unai eta Xabi.

• GAZTETXOEK GOGOKO DUTE MONITOREAK ERRUGBI ELKARTEKOAK IZATEA



ASIER, AITZOL ETA ILENIA | SANTA TERESA

"Gogoko dugu errugbi elkartekoak gugana etortzea. Ondo azaltzen digute egin beharrekoa eta jolasen bidez asko ikasten dugu, ondo pasatzeaz gain".



ANE ETA MIRIAN | ALMEN

"Normalean ez dugunez errugbian jokatzeko, ondo dago noizbehinka horrelako zerbaitek egitea eta dakitenak etortzea azaltzera".



SINEAD, AYALA, AINHOA ETA NEREA | ALMEN

"Ondo dago errugbi elkartekoak etortzea, jatorrak direlako eta ondo azaltzen dizkigutelako gauzak. Bestela egiten ez dugun kirol batera hurbiltzen gaituzte horrela".



ITZIAR, GARAZI ETA IRENE | GAZTELUONDO 6B

"Guk beste kirol batzuk nahiago ditugun arren, noizean behin ondo dago horrelakoak egitea. Eta nola ez, ibiltzen direnak etorrita askoz gehiago ikasten dugu".

Iruditan




JOSETXO ARANTZABAL

Dokea. Jokin Muxika eta Jon De Andres Iturripe elkarteko bikoteak irabazi zuen atzo Arrasateko 22. Doke Txapelketa. Guztira zazpi bikote aritu ziren doke jokoa.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Pilota. Mugurtza eta Erran-bergararrak –irudian, sariarekin– nagusitu ziren bigarren mailako seniorretako finalean.



ASTELEHENKO GOIENKARIA.

Piragismoa. Jon Mentxaka bergararrak garaipena lortu zuen K-1 modalitatean. 36 lagun aritu ziren Bergarako txapelketan.



JOSETXO ARANTZABAL

Txirrindularitza. Bederatzi herritako alebin eta infantil mailetakoko 55 neska-mutikok hartu zuten parte Oñatiko eskolarteko proban.



JOSETXO ARANTZABAL

Karatea. Bergarako, Oñatiko eta Eibarko 79 karateka aritu ziren Aloña Mendik antolatutako XI. Shotokan Txapelketan.

UDABERRI-UDAKOMODA

Zeurea da jadanik.

Bukatu da itxaronaldia: hemen da Boulevard dendaguneko udaberri-udako moda.

Zatoz eta begiratu, ukitu, erakutsi, zeure azalari erantsita daramazu.

...sentitzen duzu?



• LEHENENGO TERRITORIALA, KOPA TXAPELKETA

Bergara lider berria da, Urolari etxean irabazita

Bergara kopa txapelketa hasiera bikaina egiten ari da: partidu guztiak irabazi ditu

BERGARA
27-21
UROLA AGIP

Bergara | Kapelastegi, Uribe (2), Larrañaga (8), Agirre (3), Sanchez, Pozo (1), Najera (2), Najera, Zabaleta (1), Lenisoro, Ugalde (3), Zangitu eta Plazaola (7).

Urola Agip | Larrea (1), Gomez (1), Kerejeta (4), Mendia, Beltza (5), Lozano (2), Martin (2), Hurtado (2), Herrero, Sorluze (2), Aretzaga, Hernandez eta Garcia (2).

Golak: 2-4, 4-4, 5-5, 6-5, 9-7, 12-8, 15-9, 16-11, 17-13, 19-14, 20-16, 27-21.



JOSETXO ARANTZABAL

Bergarak erasoan ondo jokatu zuen, atzo, Labegarietan, etxekoan aurrean.

Arantzazu Ezkibel

Bergarak ezin hobeto hasi du kopa txapelketa. Atzo, Labegarietan Urola liderrari 27-21 irabazi zioten mahoneroek. Hala, sailkapeneko lehenengo postua eskuratu dute. Jokatuak hiru partiduetatik hirurak irabazi dituzte eta Urolak baino partidu bat gutxiago jokatu dute.

Atzo partidu ona jokatu zuten Josetxoren mutilek. Zeharo kontzentratuta kantxaratu ziren bergararrak. Hala ere, partiduen erritmoa hartzea kostatu egin zitzaion etxekoei. Lehenengo zatiko hasierako 20 minutuetan partidua nahiko berdindua izan zen. Jokoa azkarra izan zen Labegarietan; eta bizitasun horren ondorioz baloi

asko galdu zituzten bi taldeek paseak ematerakoan.

ATSEDENALDIRA AURRETIK
Lehenengo zatiko 20. minututik aurrera partidua etxekoan alde jarri zen. Bergarak, atezainak egindako geldiketa on baten ondorioz, kontraerasoan 10. gola egin zuen. Ondorengo minutuetan 5-leko partziala egin zuten

etxekoei, eta atsedenaldira 12-8 aurretik iritsi ziren.

Bigarren zatian, berriz, urduritasun handia erakutsi zuten bi taldeetako jokalariek. Urola hiru golera hurbildu zen, baina Bergarak defentsan egindako joko onari esker markagailua alde eustea lortu zuen. Azkenean, Urolak amore eman zuen eta Bergarak sei goleko aldea ateratu zuen.

• GAZTE MUTILAK

Arrasatekoak txapeldun dira

GATZ MUSEOA JAKION
30-13
AITXURI JATETXEA

Gatz Museoa Jakion | Sarrao (3), Callarado (3), Solterain (2), Azpilikueta (2), Hernandez (2), Aginagalde (4), Rodriguez (13), Bahoyo eta Herrero (3).

Aitxuri Jatetxea | Calzado, Alustiza, Auzmendi, Diez, Murgia (3), Azpilikueta (3), Zabalo, Fuentes (2), Martegi eta Oria (5).

Golak: 3-2, 6-2, 9-3, 11-3, 13-4, 14-6, 17-7, 18-7, 21-7, 24-9, 26-11, 30-13.

Arantzazu Ezkibel

Arrasateko junior taldeak Gipuzkoako Txapelketa irabazi du. Zapatuko partidua irabaztea nahikoa zuten txapelketa irabazteko, eta arrasatearrek ez zuten hutsik egin.

JOKOAN NAGUSI IZAN ZIREN
Etxeko taldea nabarmen izan zen nagusi. Izan ere, aurkariak sailkapeneko azkenak ziren.

Defentsan oso ondo aritu ziren arrasatearrek. Joko gogorra egin zuten eta aurkariari ez zioten jaurtiketarik egiteko zuloirik utzi. Era berean, erasoan oso



JOSETXO ARANTZABAL

Arrasatekoek lan eraginkorra egin zuten erasoan.

joko eraginkorra egin zuten. Aipatzekoa da, halaber, Rodriguezek sartutako 13 golak. Arrasateko jokalariek gazteak maila

ona duela erakutsi zuen. Dena den, talde osoak egin zuen lan ona. Orain, bada, kopa jokatu dute arrasatearrek.

• 1. MAILA. IGOERA TXAP.

Ford Mugarrik aurre hartu dio sailkapenean Donibaneri

DONIBANE
22-24
FORD MUGARRI

Mireia Bikuña

Bi taldeak elkar ondo ezagutzen dutela argi geratu zen zapatuko norgehiagokan. Ezagutza horren ondorioz, bada, partidua oso berdintsua izan zen.

Hasierako minutuetan Ford Mugarriren erasoak nahiko trabatua izan zen, Donibanek egindako defentsa onaren erruz. Arrasatearrek jaurtiketarik errazak huts egin eta baloi inozoak galdu ondoren, etxeko taldeak aldea hartu zuen: 10-8, hain zuzen ere. Atsedenaldiraren aurretik, baina, Arandoren taldea aldea murrizteko gauza izan zen.

DEFENTSAKO LANA

Donibanek hobeto hasi zuen bigarren zatia. Jokalari bat gutxiago jokatu arren, markagailuan tartea zabaltzea lortu zuen. Hala, Ford Mugarrik defentsan aldaketak egin zituen eta bizpahiru baloi lapurtu ondoren partidua berdindu egin zuen: 15-15.

Aipagarria da azken hamar minutuetan arrasatearrek egindako defentsa eta Egaña atezainaren lana. Geldiketa bikainak egin zituen; Donibanek bi gol besterik ez zituen sartu. Partidua amaitzeko bost minutu falta zirela, berdinketa zegoen markagailuan: 21-21. Orduan, Donibane jokalariek urduritasunak Ford Mugarriko defentsarekin topo egin zuen, eta etxeko jokalariek erasoan huts egin zuten. Jarraitzaileen laguntza ere izan zuen Ford Mugarrik zapatuan.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

IGOERA TXAPELKETA. MUTILAK
Donibane Majestic-Ford Mugarri 22-24

KOPA. 1. ETA 2. TERRITORIALA
Arrikruz Oñatiko Kobak atsedena
Arrasate Eskubaloitza-Leizaran Ernio 26-27
Bergara-Urola AGIP 27-21

GAZTE MUTILAK
Aloña Mendi-Tolosa 27-27
Gatz Museoa Jakion-Aitxuri Jatetxea 30-13
Bergara-Elgoibar 28-28

KADETE MUTILAK
Zarautz-Gatz Museoa Jakion 35-16
Aloña Mendi-Bidasoa Irun 29-23

KADETE NESKAK EUSKADIKO TXAP.
Leizaran Txiki-Verkol Aloña atzeratuta

• GIPUZKOAKO TXAPELKETA, SENIOR MAILA

Irabazteko aukera barik Aloña Mendi

Aloñak lehen laurdenean bakarrik izan zuen aukera markagailuan aurre hartzeko; donostiarrek mendean hartu zuten partidua

ALOÑA MENDI
47-61
ALDE ZAHARRA

Aloña Mendi | Goitia, Madariaga, Ota-mendi (4), Arregi, Zabaleta (19), Andua-ga (3), Amado (10), Gorostiaga, Mendio-la, Anton (2), Markinez (5) eta Madinabestia (4).

Alde Zaharra | Gonzalez (13), Lopez (6), Lopez (13), Santxez (4), Melero (14), Gonzalez, Abancens, Mijangos, Lopez, Mele-ro eta Ertzibengoa (11).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 14-18. Bigarren laurdena 21-32. Hirugarren laurdena 35-45. Laugarren laurdena 49-61.

Mireia Bikuña

Aloña Mendik ez zuen aukerarik izan Alde Zaharra mendean hartzeko. Donostiako taldea jokalarik gutxiarekin etorri arren taldea sendoa dela erakutsi zuen. "Taldea gogorra da. Partidua ez da samurra izango. Guk ere jokalarik gutxi ditugu. Gazte maila-

ko jokalarik batek jokatu du gurekin", adierazi zigun partidua hasieran Gorka Judezek, Aloñako entrenatzaileak.

ALDE ZAHARRA AURRETIK
Donostiako taldeak partiduko lehen minututik hartu zuen aurre markagailuan. Bi taldeen arteko aldea gehienez 3-4 puntukoa izan zen lehen laurdenean. Alde Zaharrak zonakako defentsa egin zuen. Aloñak, aldiz, banakakoa. Lehen laurdena amaitzerako donostiarrek ziren aurretik: 14-18.

Bigarren laurden eskasa jokatu zuten bi taldeek. Aloñak zazpi puntu besterik ez zuen lortu eta donostiarrek, berriz, hamar. Erasoan huts gehiegi egin zuten bi taldeetako jokalariek. Errebotean ere ez ziren ondo aritu. Atsedenean markagailuak 21-32 erakusten zuten Donostiako taldearen alde.

HIRUGARREN LAURDENA, ERABAKIGARRIA
Aloñak egin zuen hirugarren laurdeneko lehen saskiratzea, eta hasierako minutuetan hobeto jokatu zuen.



JOSETXO ARANTZABAL

Bigarren laurdenean saskiratze gutxi egin zituen Aloñak.

Hala, hiruko jaurtiketen bidez saiatu zen markagailuko alde murrizten, baina ez zuen lortu. Alde Zaharra izan zen poliki-poliki aldea handitu zuena. Hamar puntukoa izan zen alde hori. Laurden horretako azken minutuetan jokoa nahiko nahasia izan zen.

Bada, azken laurdenak ez zuen azpimarratzekorik izan. Alde Zaharrak taldeak aldeari

etsi ez ezik, handitu ere egin zuen. Tarte horretan gehienez 17 puntukoa izan zen.

Gorka Judezen jokalariek saiatu ziren azken minutuetan markagailua txukuntzen.

PARTIDU BAKARRA
Partidu bakarra gelditzen zaie oñatiarrei liga amaitzeko. Apirileko azken aste bukaeran jokatu dute.

• GAZTE MUTILAK

Garaipen samurra Mugarrarentzat

MUGARRI ALKESA
120-46
ALOÑA MENDI

Mugarri Alkesa | Arantzabal (6), Zeziaga (16), Arejolaleiba (13), Merino (17), Aranzuru (15), Barrena (10), Zeziaga (9), Atxa (10), Briñas, Zeziaga, eta Rodriguez (23).

Aloña Mendi | Lete, Casado (5), Cruickshank (22), Izurategi, Sanchez (11), Marquina (8), Blanco, Urkia eta Ugarte.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 23-11. Bigarren laurdena 57-24. Hirugarren laurdena 91-30. Laugarren laurdena 120-46.

Arantzazu Ezkibel

Mugarri Alkesak samur irabazi zion Aloñari ibarreko junior mailako derbia. Arrasatearrak sailkapeneko liderrak dira eta oñatiarrak, ordea, sailkapeneko zuloan daude.

HIRUKO SASKIRATZEAK
Aloñak ondo etsi zien etxeko partiduko lehenengo minutuetan. Zonakako defentsarekin jokatu zuten. "Gure helburua errebotea hartzea zen", esan zigun Iñigo Bikuña Aloñako entrenatzaileak. Hala, Mugarri Alkesak kanpoko jaurtiketak egi-



JOSETXO ARANTZABAL

Arrasatekoek defentsan zulo gutxi utzi zituzten.

teko aukerak izan zituen eta ez zituen alferrik galdu. Partidu guztian, hiru puntuko 11 saskiratze egin zituzten etxekoek.

Azkenean, Aloñak Mendik ezin izan zion partidua erritmoari etsi. Mugarri Alkesak 120 puntu egitea lortu zuen.

• NESKEN 2. MAILA

Eskoriatzak jaurtiketa gutxi egin zituen

A.G.

Eskoriatzako neskek 59-33 galdu zuten zapatuan Sallekoren aurka. Aurkariak eskoriatzarrak baino indartsuagoak ziren, eta, ondorioz, ez zuten arazorik izan Javi Corbalen nesken eraso gel-ditzeko orduan.

Lehenengo zatian jaurtiketa gutxi egin zituzten eskoriatzarrak eta egindako gutxiak huts egin zituzten. Partiduko partzialak hauek izan ziren: 16-6, 17-11, 14-10 eta 12-6

Hirugarren laurdenean jokoa hobetu zuen Eskoriatzak, baina ez zion irabazteko balio izan.

• 1. MAILA. IGOERA TXAP.

Mugarri Alkesa nagusi Ocasoren aurka: 59-76

Mireia Bikuña

Partidu gaitza jokatu zuen zapatuan Mugarri Alkesak Ocaso taldearen aurka, hasieratik markagailuan aurre hartu bazuen ere. Atsedenean 24-38 ziren aurretik Zurututzaren mutilak.

Hirugarren laurdenean etxeko taldea presionatzen hasi zen. Lau puntura murriztu zuen aldea. Arrasateko jokalariek neke nabaritu zuten laurden horretan. Eta azken laurdenean erabaki zen norgehiagoka. Alartziak lan bikaina egin zuen: baloia gorde, asistentziak eman eta falta asko eragin zituen.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA IGOERA TXAP.
Ocaso-Mugarri Alkesa 59-76

NESKEN BIGARREN MAILA
Salleko-Eskoriatza 59-33

SENIOR MUTILAK
Aloña Mendi-Alde Zaharra 47-61
Internacional-Candy Bergara 32-47

SENIOR NESKAK
Aloña Mendi-Oiarso 39-51

GAZTE MUTILAK
Mugarri Alkesa-Aloña Mendi 120-46
Araneta-Take Zarautz 70-69

GAZTE NESKAK
Zarautz-Aloña Mendi 70-20
San Patricio-Eskoriatza 13-43

KADETE MUTILAK
Mugarri Alkesa atsedena
GSB Acero-Lacor BKE 55-39
Zarautz-Aloña Mendi 92-30

KADETE NESKAK
Berritek-Eskoriatza 43-33

KEPA AZKUE | ARETXABALETAN BIZI DEN DONOSTIARRA, UDA-KO JOKALARIA

"Futboleant beti egon dira irainak, gure mailan ere bai"

Xabier Urtzelai

Realak Bernabeun emandako irudia ez da Bigarren Mailara jaistekotan dagoen taldearena.

Egia esateko, Astigarragan harrapatu ninduen partiduak, taldekideekin afaltzen, eta Realaren gola baino ez nuen ikusi. Komunikabideek diote partidu txukuna egin zuela Realak.

Athleticek, berriz, badirudi emozioa jarri gura diola Ligari.

Athleticek kontuz ibili behar du, berriro ere zulora sartu gura ez badu. Hori bai, gauza handia egin dute, euren eskuetan daukate dena. Realak, berriz, besteen hutsegiteen zain egon behar du. Emaitzak eta sailkapena ikusiz gero, bistan dago joan den astetik gauzak ez direla larregi aldatu.

Osasunak Realari ala Realak egin dio mesedea Osasunari?

Madrilen berdinduta Osasunak gertuago du Real Madrilen. Hori bai, Osasunak mendean hartu du Alaves, eta ni Realeko zalea naizenez, Osasunak mesede handiagoa egin digula esango nuke.

Bartzelonak berdindu egin du datorren astean Realaren kontrario izango den Santanderren kontra; eta, Eto'ok betikoak entzun ditu, berriro ere.

Futboleant beti egon dira irainak, baita gure mailan ere. Orain jendea azalaren kolorearekin sartzen da, baina euskaldunok Madrilerako joaten garenean galantak entzuten ditugu, eta baita madrildarrek hemen ere. Hori ez da arrazista izatea? Esango nuke zale batzuk barrenak husterako joaten direla futbol zelaira, batzuetan kontrarioaren kontu-



XABIER URTZELAI

Aloñari eta Real Unioni estutzeko asmoa dute Kepa Azkuek eta konpainiak.

ra, eta beste batzuetan norberaren taldeko jokalarien kontura ere bai. Gauza horien guztien kontra nago, oraindik ere ez ditut ulertzen...

Santanderko Racingen gainean berbetan hasita...

"Kopako finalean Zaragozaren alde egingo dut; talde ona dute aurten"

Datorren astekoa beste final bat da. Bernabeuko puntuak badu bere balioa, baina Realak etxeko partiduak irabazi behar ditu, eta kontrario zuzenak direnean, are eta gehiago.

Datorren jardunaldia baino lehenago Kopako finala jokatuko dute Zaragozak eta Espanyolek.

Lehengusuak ditut Zaragozan, eta euren alde egingo dut. Gainera, uste dut Zaragozak talde oso ona duela aurten, aurrealdean batez ere. Kontuan izan Bartzelona eta Madril taldeak atzean utzita iritsi direla finalera.

Harmailatik

Heldu olatu horri!




Xabier Urtzelai

Baikor. Realak uste baino gauza handiagoa egin du Madrilen. Puntuak gehitzea horren garrantzitsua den honetan, urrezko puntuak ez du horrenbeste balio. Hau da, sailkapenean puntu bat gehitzeak baino balio handiagoa du taldeak moralki jasan duen gorakadak. Baikortasunaren olatua heldu guran, Mallorcaren kontrako garaipenak ez du Madrilen etenik izan; Racingen bisita beldur barik eta konfiantzaz hartuko du Realak. Kontuan hartu behar da, baita ere, Racingek 2-2 egin duela Bartzelona ahalguztidunaren kontra. Chamartinen etekina ateratzea posible zela nioen moduan, kontuz Racing-ekin; Antoñito eta konpainia ez dira hankamotzak. Aurreikuspen bakarrean asma nezake: Aranburu lesionatu zuen Oriolek falta gogorren bat egiten badu, handiak entzun behar ditu.


Ilun. Bazirudien Alavesek ez zituela larritasunik igaroko. Ptermanek Oliva kanporatu zuenean hautsak harrotu zituen, baina taldeak itxura ona eman du hainbat jardunalditan. Hori bai, atzo Agirrek erakutsi zuen Alavesko presidentek ez duena: entrenatzaile sena. Taldea hobetu kokatu zuen mexikarrak, eta baloiaren jabe eginez, arabarrak galduta ibili ziren. Osasunak, berriz, joan den astean Getafek emandako kolpea atzean utzita, garesti saldu behar du Txapeldunen Liga.

Eta Kopa? Eguaztenean jokatuko dute Zaragozak eta Espanyolek Kopako finala. Agustin Arantzabali egindako elkarriketa izango duzue orduan irakurgai. Bergarakoak taldea ondo ikusten badu ere, ez du uste Zaragoza faborito denik. Eta, seguruenik ez du jokatuko.



Mark Gonzalez

Berriro esango dut, zuok aspertu arte: gola, arriskua, sasoa eta abiadura. Baina, 85. minutuan defendatzeko egin zuen korrikaldia ez dago ordaintzerik.



Guti

Joan den astean Roberto Carlos nola kanporatu zuten ikusi, eta hala ere... Eta, mesedez, norbaitek esan diezaiola Zidani zapatuan banatutako ostikadak bueltan jaso behar dituela.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Vila-real-Deportivo	1-1
Alaves-Osasuna	1-2
Athletic-Mallorca	1-1
Espanyol-Athletic	1-1
Racing-Bartzelona	2-2
Sevilla-Zaragoza	1-1
Malaga-Getafe	1-2
Cadiz-Betis	1-1
Real Madril-Reala	1-1
Celta-Valentzia	0-1

HURRENGOAK

Bartzelona-Vila-real
Mallorca-Alaves
Reala-Racing
Deportivo-Sevilla
Osasuna-Malaga
Zaragoza-Cadiz
Betis-Celta
Valentzia-Espanyol
Getafe-Real Madril
Athletic-Athletic

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	70	32	21	4	7	72	29
2. Valentzia	59	32	16	5	11	45	28
3. R.Madril	59	32	17	7	8	57	29
4. Osasuna	58	32	18	10	4	43	38
5. Sevilla	52	32	15	10	7	40	33
6. Celta	51	32	16	13	3	34	30
7. Deportivo	50	32	14	10	8	43	38
8. Vila-real	49	32	12	7	13	42	31
9. Getafe	46	32	13	12	7	46	41
10. Atletico	44	32	11	10	11	41	33
11. Zaragoza	42	32	9	8	15	40	40
12. Betis	37	32	9	13	10	30	42
13. Athletic	35	32	8	13	11	33	39
14. Racing	34	32	7	12	13	28	37
15. Espanyol	34	32	8	14	10	31	47
16. Mallorca	33	32	7	13	12	30	46
17. Alaves	32	32	7	14	11	32	47
18. Reala	32	32	9	18	5	40	58
19. Cadiz	28	32	6	16	10	25	44
20. Malaga	23	32	5	19	8	31	53




Kiniela

KINIELA

1. Sevilla-Zaragoza	X
2. Cadiz-Betis	X
3. Celta-Valentzia	2
4. Espanyol-Athletic	X
5. Athletic-Mallorca	X
6. Alaves-Osasuna	2
7. Malaga-Getafe	2
8. R.Madril-Reala	X
9. Racing-Bartzelona	X
10. Castellon-Levante	X
11. Hercules-Valladolid	1
12. Murtzia Hiria-Sporting	1
13. Tenerife-Lleida	X
14. Gimnastic-Albacete	1
15. Vila-real-Deportivo	X

Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Pilota

Jende asko hurbildu zen Elgetako Udal Pilotalekuaren inauguraziora

785.000 euro kostatu da pilotalekua guztiz zaharberritzea

Arantzazu Ezkibel

Elgetako alkatea, Gipuzkoako Kirol zuzendaria, Gipuzkoako Foru diputatua eta herritar mor-
doia bildu ziren zapatuan Elgetako pilotalekuaren inaugurazio ekitaldian.

Elgetako Udal Pilotalekua 1966an inauguratu zen lehenengo aldiz. Ordutik hona berrikuntzarik egin gabe zegoen eta oraingoan goitik behera itxura berri dute. Uralitazko teilatua kendu eta egurrezko eta teilazkoa jarri dute. Argiztapenak ere



Agintari eta politikariek talde argazkia egin zuten.

berrikuntzak izan ditu. Baina hobekuntza handiena berogailu sistema izan da: harmailak 20 gradura egon daitezke, pilotariak 10 gradura daudenean.

GOÑI III.A PROTAGONISTA
Inaugurazio ekitaldiko partidu nagusian Goñi III.a eta Galarza IV.ak 25-20 irabazi zioten Zezeaga eta Ubera etxeko bikoteari.

• ZER IRUDITU ZAIZUE PILOTALEKU BERRIA?



MIKEL GOÑI |
ORONOZ

Elgetan amateur mailako txapelketa garrantzitsua jokatu da. Beraz, beharrezko du hau bezalako pilotalekua Elgetako herriak.




XABIER UBERA |
ELGETA

4 t'erdiko txapelketak izen berezia eman dio Elgetari pilota munduan. Etxekoa izanda, gaurko partidurako urduri nago.



ENEKO GALARTZA |
TOLOSA

Pilotaleku baten estreinako partidua jokatzeak ilusio handia egiten du. Merezki du Elgeta bezalako herri batek pilotaleku hau izatea.



ZEZEAGA |
UBERA

Gauza polita da herri-rako pilotaleku berria; izan ere, zaharkituta zegoen. Amateur mailakoentzat frontoi ona da Elgetakoa.

Mendi lasterketa

Eskoriatzan aurkeztu zuten mendi lasterketako euskal selekzioa

Arantzazu Ezkibel

Barikuan aurkeztu zuten, Eskoriatzan, Euskal Herriko mendi lasterketako selekzioa eta Euskadiko kopa eta txapelketa.

"Mexikon hasiko dut denboraldia, maiatzaren 7an", esan zigun Zuhaitz Ezpeletak, ibarreko ordezkari bakarrak. Aizkorren ere arituko da Zuhaitz.

Euskadiko Txapelketa Iza-ban jokatu da, uztailearen 2an. Euskadiko kopako lasterketak hauek izango dira: Bera (apirilak 23), Aloña (apirilak 30), Pagoeta (maiatzak 4), Galarleiz (uztaileak 23) eta Baigorri (irailak 23).



Mendi lasterketako Euskal Selektzioa. Alizia Olazabal, Rosa Lasagabaster, Zuhaitz Ezpeleta, Ionut Zinca, Arkaitz Zamakona, Iker Karre-
ra, Andres Orbeagoza, Asier Lasa, Marta Gartzia, Felipe Larrazabal, Jabi Olaberria, Iñaki Lopetegi eta Marta Vidal, selekzioko kideak.

Amaia Doyague arrasatearra Tolosaldeko Arraun Klubeko kide da. Asteburuan Gipuzkoako

Txapelketa jokatu dute Pasai San Pedron eta baita ere irabazi. Gipuzkoako txapelduna da arrasatearra.

AMAIA DOYAGUE | ARRAUNLARIA

"Egunero ateratzen gara ibaira entrenatzera"

Arantzazu Ezkibel

Sakrifizio handiko kirola da arrauna. Arrasatearra izanda, zerk bulztatu zintuen kirol hori aukeratzera?

Bai, dudarik gabe sakrifizio handiko kirola da arrauna. Orain dela bi urte etorri nintzen Tolosara bizi izatera, eta, ibaiaren ondoan bizi naizenez, entrenatzen ikusten nituen. Kuriositatea izan dut beti.

Nire lagun taldean, arraunean ari diren neska batzuk zeuden, eta haien bitartez hasi nintzen. Kuriositatea izan da gehienbat, zerbait ezberdina probatzearen hasi nintzen.

Oria ibaian egiten duzu arraunean. Zer moduzko osasuna du gaur egun Oria ibaiak?


Hasiera batean, Tolosan bertan entrenatzen ginen, baina orain, obretan ari direnez, Adu-nara joaten gara. Oria ibaiaren osasun aldetik Deba baino pixka bat hobeto dago, baina ez pentsa. Susto handiak izan ditugu, arratoiak direla eta. Egia esatearren, nahiko zikina dago ibaiak.

Sakrifizio handiko kirola da, lehenik eta behin negua oso gogorra egiten delako eta asko entrenatu behar delako. Zenbat entrenatzen zarete zuek?

Egunero entrenatzen gara, eta entrenamendu guztiak ibaian egiten ditugu. Ibaia egoera onean badago, nahiz eta euria izan edo elurra izan, beti ibaira ateratzen gara.

Ibaia asko igotzen den egunetan edo hark zikinkeria handia ekartzen duen egunetan ezin ditugu batelak hartu. Ibaia ez bada-
go arraunean egiteko egoera egokian, kiroldegira joateko aprobetxatzen dugu. Hemen, gure kirolera egokitutako materiala daukagu entrenatu ahal izateko. **Konpetizio moduan hartzen duzu arrauna ala zaletasun moduan?**

Hasiera batean, arrauna kirol bezala hartu nuen, zaletasun gisa,



TOLOSALDEKO ARRAUN KLUBA

baina behin txapelketetan parte hartzen hasita, lehiakortasun premia hori gorputzean sartu zait. Normala da, banderak horren gertu ikusita!

Zelako maila erakutsi duzue aurretan?

Aurreko urteetan taldea nola ibili zen ez dakit, baina aurretan oso ondo ibili gara. Nahiz eta taldean jende gazte asko dagoen, maila ona eman dugu. Aurrean izan gara ligaxka guztian eta azkenean Gipuzkoako txapelketa irabaztea lortu dugu.

Taldeakide guztiak Tolosaldekoak gara. Kosta pixka bat urrun geratzen zaigu eta ondorioz ibaian entrenatu beharra daukagu, egoera txarretan. Kostako taldeek guk baino material eta baliabide hobeak dituzten, baina, hala ere, gu hor aurretan ibili gara lehian.

Tolosan berpizten hasi da bateletako zaletasuna?

Bai, nik uste dut orain dela urte batzuk hasi zela berpizten. Lehen, asko egiten zen arraunean, baina gerora utzi egin zen. Orain dela pare bat urte, San Juanetako txapelketa antolatzen hasi ziren berriro ere, zaletasuna berpiztu nahian. Herri mailako txapelketa da San Juanetakoa.

Jendea hurbiltzen da Tolosan batelak ikustera? Bada jarraitailerik?

Bai, jendea etortzen da batelak ikustera. Kanpora goazenean, batez ere Orio aldera, nabari da hor jende asko mugitzen dela kirol horren inguruan. Zaletasun handia dago.

Tolosan, San Juanetako txapelketan, jende asko hurbiltzen da ibaira batelak ikustera, eta ibai inguruak jendez betetzen dira.

Zaletua zinen aurretik ala hasi eta gero zaletu zara?

Egia esan, orain arte ez naiz inoiz egon estropadetan. Arraunean kuriositateagatik hasi nintzen. Baina, orain, jarraitzaile egin naiz.

"Nabari da kostaldean jende gehiago mugitzen dela arraunaren inguruan"

"Oria ibaiak nahiko zikin dago; susto ederrak hartu ditugu arratoiekin!"

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Andere Arriolabengoa eta Manex Agirre Arabako Bertso Txapelketako final erdietara | 24
- Lausardi Koru Sinfonikoak eta Donato Goienetxek txunditu egin zuten Amaian batutako jendea | 26

Amaia Labaienekin Baionan jokaturako hip-hop lehiaketaz eta jaso dituzten sariez aritu gara | 28

LAGASH TALDEAK DISKOA AURKEZTU DU



JOSETXO ARANTZABAL

Segurtasun handiarekin aurkeztu zituzten *El sueño y la traición* disko berriko abestiak.

HEAVY METAL | 'EL SUEÑO Y LA TRAICION' LEHEN DISKO LUZEA AURKEZTU ZUTEN ZAPATUAN OÑATIN

Izandako gorabeherak gaindituta, indarrak batu dituzte aurrera egiteko

Madrilgo diskoetxe batekin kontratua sinatu dute eta taldeari benetako bultzada emateko prest daude Lagashekoak; zapatuan lehen disko luzea aurkeztu zuten Oñatiko gaztelekuan

Jon Berezibar

Hamar urte baino gehiago jotzen ibili eta hamaika gorabehera bizi izan ostean, Lagashekoak gertu daude berriz ere taldeari bultzada eman eta aspalditik dauzkaten ametsak betetzeko. Desio horietako bat diskoa kale-ratzea izan da, eta hori, behintzat, dagoeneko lortu dute. *El sueño y la traición* izenburuarekin eta planteamendu kontzeptual bitxiarekin, euren lehen bilduma luzea kalean daukate dagoeneko. Zapatuan, Oñatiko eta Arrasateko sei lagunek osatzen duten taldeak diskoa aurkeztu zuen gaztelekuan, lagunekin eta aspaldiko ezagunekin batera. Indarberrituta eta diskoetxe

batekin kontratua sinatuta, taldeak disko horrekin emaitzak lortu gura dituela erakutsi zuen zapatuko zuzenekoan.

Soriatik etorritako Aregrada taldeak egin zituen irekitze lanak. Haiek ere, Lagashekoek moduan, erarik klasikoenean ulertzen dute heavya, 80ko hamarkadako soinua gogora ekarri eta eguneratuz. Laukotea pozarren ibili zen oholtzan eta amaiera txalo ugari jaso zituen ikusleen aldetik. Jasotako harre-rarengatik eskerrak emanez agurtu ziren gaztelauak.

AMETSEN BILA

Jarraitzaileei askorik itxaronarazi barik irten ziren Lagashekoak jarraian. Ikusleen artean

lagun ugari zeudela agerikoa zen, nonahi ikusten ziren-eta taldearen kamisetak, eta kontzertu osoan zehar taldekoak animatzen ibili ziren. Giroa, beraz, bermatuta

Erronka berriak dituzte etorkizunerako eta taldea gogotsu dago

Taldearen onerako, ematen du etapa berriko lerrotzea epe luzerako dela

izanda, hasieratik egon ziren eroso eta gustura seiak.

Kontzertuak diskoaren planteamendua bete zuten. Izan ere, *El sueño y la traición* lana bi zatitan banatzen da eta zuzenean ere hala egin zuten. Lehenengo, diskoa zabaltzen duten abestiei ekin zieten, baina bigarren zatiak egitura trinkoagoa izan zuen. Hain zuzen ere, *El sueño y la traición* izenburua izateaz gain, diskoan jasotzen den istorio kontzeptuala ere bada. Aitaren eta semearen arteko askatasun borroka kontatzen du istorioak eta ildo narratibo horri eutsi zioten kontzertuan ere. Aipatzekoa da, era berean, diskoa aurkezten bada-biltza ere, abestiek dagoeneko badutela denboratxo, eta zuzen-

LAGASH TALDEAK DISKOA AURKEZTU DU

SERGIO LOPEZ | TEKLATU-JOTZAILEA

“Geure kabuz grabatu genuen diskoa lokalean”

J. B.

Ate asko jo behar izan duzue diskoetxea lortzeko?

Denbora luzea daramagu abesti hauekin. Orain dela hiru bat urte *demo* bat grabatu genuen

abesti batzuekin eta diskoetxeetan banatu genuen. Orain dela urtebete lortu genuen banaketa-kontratu bat diskoetxe batekin. Etxe askorekin egon gara harremanetan eta azkenean Akelorekin egin ditugu harremanak.

Pozik lortutako tratuarekin?

Hasteko, kontratua beti ez da horren ona izaten, baina pozik gaude. Grabaketa guztia gure kabuz egin dugu entsegu aretoan bertan, nahasketekin batera, eta masterizazio lana Madrilgo estudio baten egin dugu. Grabaketa horiek guztiak orain dela urtebete egin genituen, eta horretan genbiltzala atera zen diskoetxearen kontu hori guztiori.

Sinatze horrek taldearekiko konpromiso handiagoa ekarri du?



JOSETXO ARANTZABAL

Konpromisoa bai, urtebetez gutxienez lan horri lotuta egon behar duzula badakizulako: kontzertuak, entseguak... Erritmoa igo egiten da.

Aukera berriei, hortaz, ez diezue ihes egiten utziko.

Ilusioarekin gaude. Denok daukagu gogoa zuzenean jo eta aurrera egiteko. Dena ondo badoa bigarren diskoa ere egingo dugu; abesti berriekin hasi gara dagoeneko. Baina talde baten jotzeak daukan onena da zuzenekoak egitea.



Madrilgo Akeloo diskoetxeak argitaratu die

Iaz grabatu zituzten *El sueño y la traición* debut diskoa osatzen duten abestiak. Oñatin bertan, euren entsegu aretoan, egin zuten grabaketa Lagashekoek eta diskoa nork banatu aurten aurkitu dute. Akeloo Madrilgo diskoetxeak argitaratu die lehen diskoa, apiril hasieratik salgai dagoena. Aitaren eta semearen arteko harremana eta askatasun nahia dira diskoaren oinarriak gai aldetik.

nekoan ere heldutasun hori erakutsi zuten, trinkotasun nahikoarekin, hain zuzen ere.


Taldeak ere, abestien moduan, dagoeneko lortu du horrenbeste urteren ostean konfiantza nahikoa. Etapa berri honetan, gainera, eta hainbat aldaketaren ostean, esan liteke hasierako lerrokatzera itzuli direla, taldea utzi zuen bateria-jotzailea Andoni itzuli egin da-eta. Aspal-diko lagunak eta kide berria ere aurkeztu zuen Lagashek. Sergio Lopez teklatu-jotzailea izan da taldearen azkeneko fitxaketa. Hark ere taldearekin ederto egin duela bat erakutsi zuen.

Taldea osasuntsu dago, gogotsu antzematen zaie etapa berri honi aurre egiteko. Disko berriak eta diskoetxearekin kontratua sinatzeak konpromiso handiago eskatzen badu ere, erronka berriei ilusioz erantzuteko asmoarekin dabiltzala ematen du. Musika egiten urte asko badaramatzate ere, gorabehera asko bizi izan ditu taldeak hasi zenetik, baina ematen duenez, azken aldaketa hauek behin betikoak izan daitezke taldearen osaketan, eta, eurek esanda, dagoeneko hasita daude etorkizunerako planak egiten.



Zeu zara Gipuzkoaren motorra

Abian jartzen dugun egitasmo berri bakoitzaren atzean, erronka bakoitzaren atzean, pizten den ilusio bakoitzaren atzean, zu zaude. Zeu zarela Gipuzkoaren motorra.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



MUSIKA | **KOKEIN TALDEAK GRABAZIOA EGIN ZUEN ESPALOIAN**

Oso berezia eta emozioz beterikoa izan zen Kokeinen kontzertua Elgetan

Non. Elgetako Espaloia kafe antzokian.
Zenbat jende. 230 bat lagun.
Iraupena. Ordu eta laurden inguru.

Larraitz Zeberio

Egun luzea eta emozioz beteriko izan zen zapatua Kokein taldeko kideendako. Iragarria zuten moduan DVD baterako grabatu zuten Espaloia kafe antzokian emandako kontzertu akustikoa.

Eibarkoak goizeko 9etan hasi ziren prestaketa lanekin Espaloian. Haritz Lete taldeko bateria-jotzailea izan zen goiztiarren Elgetako aretora igotzen.

LAGUN ARTEKO KONTZERTUA

Urduri zeuden Kokein taldekoak kontzertua hasi aurretik. Dena prest zegoen Espaloian, tartean grabaziorako bereziki prestatutako eszenatokiaren dekorazioa.

Aretoak ere giro berezia hartu zuen okasiorako. Sofa eta besaulkiak ez zituzten kendu eta han-hemenka jarritako mahaietan kandelatxoak piztu zituzten. Giro lasai eta atseginean egin

zuten, beraz, kontzertua. Eta emanaldi borobila egin zuten Kokeinekoek. *Goiena telebistako* lau kamera eta 230 bat lagun aurrean egin zuten saioa. Ikusle asko eibartarrak edo rock taldearen jarraitzaile sutsuak ziren.

Detale guztiak zaindu zituzten Kokeinekoek, eta, musika emanaldia izateaz gain, zapatuko saioan begiek ere gozatu ederri hartu zuten; izan ere, argiztapena bereziki zaindu zuen grabaziorako Eibarko taldeak.

DVD-A MARTXAN DA

Gustura gelditu ziren grabatutako materialarekin Kokein taldekoak. Ez dakite oraindik noiz kaleratuko duten DVDA, hurrengo diskoarekin agian. Ikusteko irrikaz gaude dagoeneko.

'Lotuta egon arren' diskoko kantuak jo zituzten DVDaren grabaziorako

Alberto Martinez eta Izar Mendiguren sailkatu ziren zapatuan finalerdietarako

Arabako Bertso Txapelketako 2. kanporaketa jokatu zuten Aramaion. Ibarreko bi ordezkari ere izango dira finalerdietan.

M.B.

Aramaioko Urizarri elkartearen kanporaketa jokatu zuten zapatuan, bapote afaldu eta gero, Aramaio Bertso Txapelketako bigarren kanporaketa. Zortzi bertsolarik hartu zuten parte, tartean Aramaio Iker Agirrek.

Lan polita egin zuten guztiek, nahiz eta une batzuetan nerbioak nabaritu egin zitzaizkien. Kontuan hartu behar da, gainera, hasi berriak direla bertsolarietako batzuk. Emaitzari dagokionez, Alberto Martinezek eskuratu zuen puntu gehien (138); hortaz, kanporaketan lehenengo geratzeagatik zuzenean pasatu da finalerdietara. Horrekin batera, puntu bidezko sailkapenaren arabera, Izar Rodriguezek ere

finalerdietarako sailkatzea lortu zuen zapatuan (137 puntu). Orlando Arraitunandia (130,5) eta Iker Agirre aramaioarra (120,5), berriz, ordezkari izango dira. Iker Agirrerri dagokionez, entzuleen saria irabazi zuen zapatuko emanaldian.

IBARREKO BI ORDEZKARI FINALERDIETAN

Aramaioko bi ordezkari hartuko dute parte maiatzaren 7an Agurainen eta maiatzaren 13an Dulantzin jokatu diren finalerdietan. Bata Andere Arriola-bengoia da, lehenengo kanporaketan sailkatu zen-eta. Bigarrena Manex Agirre da. Iazko finala jokatu zuen Agirrek eta horrek zuzenean aurtengo finalerdietan sartzeko aukera eman dio.



JOSETXO ARANTZABAL

Sailkatu ez zen arren, entzuleen saria irabazi zuen Iker Agirrek zapatuan.

Sutan ipini zuten gaztetxea zapatuan

Jarraitzaileak bere esanetara izan zituen Fernando Sapo sukoiak, gaztetxearen urteurrena ospatzeko kontzertu bikainean

Jon Berezibar

Apirilaren 15eko urteurrenaren ospakizunen barruan jo zuen zapatuan gaztetxean Kuraia taldeak. Indartsu eta bizi bezain tinto, baten baino gehiagoren piztia piztu zuen Fernandok zapatu

gauean. Erantzun polita izan zuen kontzertuak eta hasiera-hasieratik jarri zituzten alde jarraitzaileak. Suzko akrobaziak, zoramea eta rock-and-rolla izan ziren nagusi gauean. Eurekin batera Kloakao taldekoek ere jo zuten eta abeslariak Kuraiaekin batera aurkeztu zuen aurtengo Topaguneko abestia. Amorruguztiaren ederto eman zuten egurra era ikusleek ere disfrutatututela garbi egon zen; lehenengo ilaretan ez zegoen bururik geldi, guztiak dantzaz zebiltzan. Talde indartsua da Kuraia, eszenatokian egoten dakiena, eta zapatukoa gozatzeko modukoa izan zen.



Fernandok eta gainontzeko piztiekin egurra banatu zuten.

JOSETXO ARANTZABAL

ITZIAR UGARTE

optika

ORDAINKETA ERRAZAK

**6 hilabetetan
ordaintzeko aukera.**

(N.A.N. eta zure kontu-korrante edo txartel zenbakiarekin bakarrik)

INTERESIK GABE
Galde iezaiguzu!!

0%



JOSETXO ARANTZABAL

Goienetxeren zuzendaritzapean jardun zuten perkusio taldeak eta Lausardik. Mari Fe Nogales mezzosopranoak eta Jagoba Fabrique baritonoak (irudiaren eskuinaldean) bakarkako lana egin zuten.

MUSIKA SINFONIKO-KORALA | DONATO GOIENETXEREN 'AFRIKA' EGIN ZUEN LAUSARDI KORU SINFONIKOAK ZAPATUAN ARRASATEN

Afrikara eroan eta goitik behera erakutsi zigun Lausardik zapatuan

Donato Goienetxek konposatutako lana da, eta hark zuzenduta emanaldi bikaina egin zuen koruak

Monika Belastegi

Lausardi Koru Sinfonikoaren helburua –Bergarako Orfeoia eta Arrasateko Goikobalu abesbatzak osatzen dute– batik batik euskal autoreen musika sinfoniko-korala bultzatzea da. Bide horretan proiektu koral berriak eta interesgarriak sortu eta bultzatu nahi dituzte, eta zapatuan Amaia antzokian entzun ahal izan genuen Donato Goienetxe konpositore nafarraren *Afrika* da horren adibide.

AFRIKAREN BIHOTZA

20:00etan hasi zen emanaldia, eta, ordu eta hogeita bat minutuz, Afrika kontinentea, hango herritarren musika, hizkuntzak, usadioak... erakutsi zizkieten

Perkusioa, teklatura, saxoa eta ahotsa dira 'Afrika' lanaren oinarria

entzuleei. Eta horrekin batera elkartasunaz eta errespetuaz ohartarazi ere bai.

Perkusioa, teklatura eta saxoa –zortzi musikari– eta ahotsa –80 bat kantari– dira *Afrika*-ren oina-

Lan oso erritmikoa da eta kantariantzat, bederen, ez oso erraza

ria. Lan oso erritmikoa da eta abeslariendako, bederen, ez oso erraza. Literatura edukia Afrikako tribuetako testu originalek eta Goienetxe egilearen poemek osatu zuten.

Afrikako tribuek maitasunari, ehizari, arrantzari, lanari... nola abesten dioten erakutsi zuten. Baina Atlantikoaren beste aldean ere milioika afrikarren ondorengoak bizi dira, eta hori ere jasotzen du *Afrika*-k; besteak beste, erritmo afro-funkya, afro-jazza eta blues ukituekin.

IÑAKI MAIDAGAN | LAUSARDIKO ZUZENDARIA DAVID AZURTZAREKN BATERA

"Lausardiren lorpen handiena da ibarreko bi koro batu eta proiektua finkatu izana"

M.B.

Arrasateko Goikobalu abesbatzako zuzendaria da Iñaki Maidagan, baina baita Lausardikoa ere, David Azurtzarekin batera. Lausardiz egin dugu berba.

2000n sortu zenuten Lausardi, Deba Goieneko koro gisa. Dagoeneko sei urteko ibilbidea du eta hori nabaritu egiten da.

Bai. Bergarako Orfeoia eta Arrasateko Goikobalu abesbatzak osatzen dugu Lausardi eta

urteotan elkarrekin jarduteak elkar hobeto ezagutzen joaten lagundu digu eta, ondorioz, hobeto egokitzen. Horixe da sei urteotako aldaketarik nabarmena. Gainerakoan ez da Lausardi ezertan aldatu.

Esperimentu gisa hasi zena, hortaz, finkatuta dago gaur egun.

Bai, frogak gisa hasi eta finkatzen joan da. Emanaldiak ere ugaritzen joan dira: urtean lau bat egiten ditugu Lausardirekin, orfeoia eta Goikobaluk euren kasa egiten dituztenak kontuan izan barik. Horrez gain, Lausar-

diren emanaldiak prestatzeko orduan, lehenengo eta behin taldeetako bakoitzak gure kontura prestatzen ditugu obrak eta emanaldia hurbildu ahala biok batu eta elkarrekin egiten ditugu entseguak.

Ibarrean dauden gainerako abesbatzen osagarri da Lausardi?

Gure hasierako asmoa horixe zen. Ibarreko koro gehienak 30-40 kide ingurukoak gara. Hala, eskaintzen genuen errepertorioa nahiko antzerakoa zen. Gainera, proiektu handiagoak, konposizio handiagoak eskaini nahi izaten



ARTXIBOA

genuean ibili behar izaten ginen jende bila aurrera eroan ahal izateko... Hori horrela, ibarrerako koro handia egitea erabaki genuen, konposizio handietarako, hala nola: mezak, requiemak...

Zein da zure iritziz Lausardiren lorpenik handiena.

Zalantza barik, bi koro batu izana eta sei urteren ondoren oraindik ere batuta egotea eta era horretan proiektua finkatu izana. Guztian onena horixe da, nire iritziz; eta bi taldeek, hau da, Arrasateko Goikobalu abesbatzak eta Bergarako orfeoia, osagarri gisa ikustea Lausardi.

Zein dira epe laburrera Lausardiren proiektuak?

Orain *Afrika* ikuskizunarekin gabiltza eta hainbat udalek erakutsi dute interesa. Oraindik ez dago ezer lotuta, baina uste dut *Afrika*-rekin hainbat kontzertu egingo ditugula. Horrez gain, epe luzeagorako ere badarabilgu buruan beste lanen bat prestatzea, mezaren bat-edo, baina oraindik asmoa besterik ez da.

Apirilaren 10a: 088zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, apirilak 10, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 36 euro
2006 bukaerara arte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

082
zozketa

saridunak

Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena
zerrendan badago,
ZORIONAK!

Sei gonbidapen EIBAR-HERCULES futbol partidurako (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).


- Jose Antonio Oianguren Bilbatua (Elgeta)
- Ixone Barrutia Urrutia (Bergara)
- Mikel Orobengoa Ortubai (Arrasate)
- Aitziber Quintanilla Elkorobarrutia (Aretxabaleta)
- Iñaki Arrondo Agirre (Bergara)
- Iñaki Eguren Bengoa (Oñati)

Apirilaren 24ko saria

EIBAR-TENERIFE

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



Arrasateko ikasle talde bat asteburuan Baionan jokatu den unibertsitate arteko dantza lehiaketan izan da. Amaia Labaienek 21 urte ditu eta hiru saio

ezberdinetan hartu du parte, guztiak ere hip-hop estiloan. Gustura bueltatu da Baionatik. Lehiaketan lan ona egin dute Arrasatekoek eta oso interesgarriak iruditu

zaizkio domekan jasotako dantza ikastaroak, gehienbat dantza afrikarreko eskolak. Orain jendaurreko hip-hop emanaldiak prestatzen dihardu lagunekin.

AMAIA LABAIEN | IKASLEA ETA HIP-HOP DANTZARIA

"Ugaritzen ari dira hip-hop eta euskal kultura batzen dituzten ikuskizunak"

Larraitz Zeberio

Zer moduz joan da lehiaketa?

Oso gustura gelditu gara egin dako lanarekin eta denek jaso dugu sari bana. Jaione Larrañaga, gainera, hirugarren gelditu da bere kategorian.

Maiak handia aurkitu duzue Baionako txapelketan?

Txapelketaren antolaketa ez da nik espero nuena izan. Hiru kategoria zeuden: jazz, dantza garaikidea eta bestelakoak. Gu bestelakoen sailean sartu gara eta lehiatu gara salsa, dantza afrikar eta beste estilo askorekin batera. Kategoria honetan gutxi ginen, zazpi zehatz-mehatz.

Ikusi duguna da hemen jendeak serio hartzen duela dantza. Gu zaletasunez aritzen gara, baina hemen entrenatzaile eta guzti ibiltzen dira. Erdi-profesionalak dira. Beraz, gu gustura gaudeskuratu ditugun sariekin. Diploma bana jaso dugu.

Zer da hip-hop?

Hip-hop musikarekin bakarrik lortzen dugu gehienok. Musika atalean daude DJak eta MC edo raperrak. Parte grafikoan grafitilariak daude eta gero gu, dantzariak. 70eko hamarkadan, New York-eko Bronx auzoan sortu zen dantza estilo hori. Jatorria amerikarra, afrikarra eta afro-bra-

sildarra du. Eraginak, berriz, Brasilgo catanga eta Japoniako kung-fua.

Dantza koreografiak zein elementurekin osatzen dituzue?

Musikak garrantzi handia du dantza modalitate horretan. Musikaren bidez istorioak kontatzen saiatzen gara. Baionako lehiaketara aurkeztu dugun taldekako saioan, esaterako, askotariko musika estiloak sartu ditugu eta bariazioak egiteko aukerak sortu ditugu horrela. Reggaeton, Rammstein... Kontrasteekin jolasean aritu gara. Sormena eta originaltasuna baloratzen dituzte epaimahaikideek. Gero, posizioak etengabe aldatzen ditugu. Horiek dira gakoak.

Oso modan dagoen estiloa da. Zergatik?

Modan dago, bai. Ikusi besterik ez dago barikuan Bilborock aretoan egindako ikuskizuna. Bertsogintza eta hip-hop nahastu zituzten Elortza, Iturriaga eta Maiak. Nik, dena den, bi dantza estilo bereiziko nituzke. Bata hip-hop komertziala eta bestea hip-hop urbanoa. Ikusten dena Are&Be edo rhythm&blues delakoak dira, komertzialak. Hip-hop urbanoa zertxobait desberdina da, ez da hainbeste saltzen. **Janzkera ere landuko zenuten lehiaketarako.**



MAIDER ARREGI

Amaia emanaldiak prestatzen ari da uda honetarako Iparraldeko Mak hip-hop taldearekin.

Hip-hopean, normalean, arropa oso zabala erabiltzen da. Horrek badu bere zergatia. Hip-hop sortu zenean ohitura zen anaia txikiek anaia nagusien arropa erabiltzea eta gehienetan oso handia izaten zen. Gero, osagarriak daude: txapelak, bise-

rak, zapi koloretsuak, eskumuturrekoak. Guk galtza beltzak aukeratu ditugu lehiaketarako. Hortik aurrera nork bere estiloan landu du. Kamiseta handiak edo tripa agerian uzten duten horietakoak... Bakoitzak ikusi du.

Ideologia bat dago horren atzean, ezta?

Bai. Zera dio ideologia horrek: egin dezagun borroka baina biolentziarik erabili gabe. Filmetan sarritan ikusten dira bi banda kalean elkarri dantza desafioa egiten. Horixe da hip-hop, armak utzi eta dantza egin jendearen errespetua irabazteko.

Abilezia bereziak behar dira hip-hop ikasteko?

Ez. Baina denerako bezala praktika behar da. Ez da tekniki-koki zaila, adin guztietara egokitzen da, baina entseatu egin behar da.

Beste proiektu batzuk ere badi-tuzula esan didate?

Iparraldeko musika talde bat ezagutzen dut, Mak izenekoa, eta CDa grabatzekotan dira. Bideo-klipa ere egin nahi dute. Jaione eta biok taldeko dantzariak gara eta grabazio horretan parte hartzeak gara, baita taldeak ondoren emango dituen kontzertuetan dantza egiteko ere. Musika pasa digute eta dagoeneko asmatu dugu dantza.

Talde horrek euskal musika tradizionala eta hip-hop nahastu ditu. Asmoa dugu udan lehenengo emanaldiak egitea. Maiatz edo ekain aldera izango dela uste dut.

Lanpetuta ibiliko zarete orduan...

Bai. Bestalde, Baionako lehiaketarako 11 lagun elkartu gara eta lauzpabostek aipatu dugu dagoeneko talde bat osatzeko ideia. Hip-hopak lantzen dituen atal ezberdinekin osatuko gure proposamena: DJak, rap kantariak, grafitilariak, dantzariak... Ea aurrera ateratzen den!

"Oso gustura gelditu gara egindako lanarekin eta denek jaso dugu sari bana"

"Gu zaletasunez aritzen gara, baina Iparraldean oso serio hartzen dute dantza"

"Hip-hop estiloko rap kantariak eta grafitilariak gero eta ezagunagoak dira; modan daude"

"Hip-hoparen atzean borroka gaitzetzen duen ideologia dago, dantza-desafioa da"

UGARTE

ARROZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
•
Horma armairuak
•
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA

Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA

San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

Klown teknika eta irri-terapia ikastaroak, barrea gure alde erabiltzeko

Oihulari Klownek bi klown ikastaro emango ditu Bergaran, eta irri-terapiarena Eskoriatzako Udalak antolatu du

Leire Kortabarria

Aste Santu eta Pazko garairako klown ikastaroak antolatu ditu Bergarako Oihulari Klown antzerki taldeak. Hasierako klown ikastaroa apirilaren 13an eta 14an emango dute, eta sakontzeko beste bat hilaren 18an, 19an eta 20an. Bergarako San Juan auzoko Aibar base-rrian emango dituzte biak. Izenematea zabalik dago 607 20 45 03 telefono zenbakian. Hasierako klown ikastaroko matrikula 130 euro da.

INPROBISAZIOAREN BIDEZ Ikastaro horrek arrakasta handia izan du beti: 17 bat urte daromate oporraldietan halakoak

antolatzen. 12 laguneko taldeetan egiten dute lan. Virginia Imaz irakaslearen esanetan, "denetarikoa eta adin guztietako jendea" joaten da; gutxienak, antzerki mundukoak.

"Gure buruaz barre egiteko, konfiantza lantzeko eta lotsa galtzeko teknikak erabiltzen ditugu, jokoan, erlaxazioaren eta inprobisazioaren bidez", dio Imazek. Irakasleak dioen bezala, "gure buruaz barre egiten badugu, jendeak gurekin egingo du barre, ez gutaz".

BARREA TERAPIA MODUAN Barrea gure onerako erabiltzeko beste ikastaro bat ere bada: Eskoriatzako Udalak antolatutako irri-terapia ikastaroa. Maiatzaren 4ra arte dute izena emateko aukera 25 urtetik gorakoek, kultura etxean (943 71 46 88), 5 eurotan. 20 ikasle bakarrik hartuko dituzte eta izenemate-ordena zorrotz jarraituko dute. Barrea terapia moduan erabil daitekeela frogatuta dago. Besteak beste, tentsioa eta negatibotasuna askatzen, gorputzetik eta burutik hobeto egoten... laguntzen du.

Hitzorduak



XXI. MENDEKO EUSKAL IDAZLE GAZTEEN GAINEKO ERAKUSKETA I
Arrasaten dago bisitatzeko aukera, Monterron kultura etxean, maiatzaren 5era bitartean

XXI. mendeko euskal idazle gazteak hobeto eza-gutarazteko helburuarekin, erakusketa ibiltaria antolatu du Euskal Idazleen Elkarteak, eta Monterron kultura etxean dago egunotan. Apirilaren 13tik 17ra itxita egongo da, baina bestela, astelehene-tik zapatuta dago ikusteko aukera.

Erakusketak liburutegi forma hartzen du: 30 idazleren biografia eta bibliografia jakinarazten dira, eta ordenagailu bidez, idazle bakoitzak irakurritako pasarte bana entzun daiteke. Erakusketako azken astean, 15-16 urteko ikasleek bisita gidatua izango dute.

Labur

Liburu Azoka egiteko ale zaharrak behar dituzte Aramaioako gazteek

Aramaixo Tropikalek, Aramaioako gazte batzarrak, liburu erabilien azoka egingo du apirilaren 29an, Nazioarteko Liburuaren Eguna ospatzeko, eta herritarrei dei egiten die behar ez dituzten liburuak azokarako emateko. Liburuok uzteko lekuak hauek dira: udal-etxean, goizez, eta kultura etxean, arratsaldean.

Liburuaren Eguna apirilaren 23an baldin bada ere, Aramaixo Tropikalek erabaki du 29an egitea azoka, 23an jende asko oporretan egongo delako. Bigarren urtez egiten dute azoka hori.

Itoitz Armendarizek Pirena proban ateratako argazkien erakusketa

Aitzorrotz kultura elkarteak argazki erakusketa antolatu du hil osoan Inkernu tabernan: Itoitz Armendariz eskoriatzarraren Pirena esperientzian ateratako argazkiak dira. Pirinioak txakurrek bultzatutako leran ekialdetik mendebaldera 15 egunetan zeharkatzen dituen lasterketa da Pirena, eta bere motako garrantzitsuenetako bat da mundu osoan.

Horrez gain, elkarte horrek sagardotegi batera irteera antolatu du hilaren 29rako, eta Inkernu tabernan eman behar da izena.

Kataluniako pailazo talde ezagun batek Antzuolan antzeztuko du

Kataluniako Cirquet Confetti taldeak emanaldi berezia egingo du gaur, astelehena, Antzuolako herri eskolan, 18:00etan. 4 urtetik gorako umeendako eta euren aita-amendako da, eta ikastetxeko irakasleak ere egongo dira. Emanaldi berezia izango da, hain zuzen, ikuskizun horren lehenengo aldia izango delako.

Cirquet Confetti oso talde ezaguna da Katalunian. Bi neska pailazo etorriko dira Antzuolara. Bata musikaria da, eta besteak malabarismoa egiten ditu. Familia osoarendako zirko saioa da.

ZINEMA I

• **La pantera rosa** filma emango dute Oñatin Gaur, astelehena, emango dute film hori Oñatiko kultura etxean, 19:30ean.

• **Brokeback mountain** filma emango dute Arrasaten Gaur, astelehena, emango dute film hori Amaia udal antzokian, 20:30ean.

• **Snatch, cerdos y diamantes** filma emango dute Elgetan Ertzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

• **Un lugar maravilloso** filma egubakoitzean Aramaion *Un lugar maravilloso* delako filma emango dute egubakoitzean, hilak 14, kultura etxean, 22:00etan.

• **Tarzan 2 animaziozko filma emango dute Aramaion** *Tarzan 2* marrazki bizidunetako filma emango dute domekan, hilak 16, Aramaioako kultura etxean, 17:00etan. Familia osoarendako moduko filma da.

IKUSKIZUNAK I

• **Ingeleseko hiru antzeztan Txantxiu ikastolan** Ikastolaren Eguneko ospakizunen barnean, English Theatre Company taldeak antzeztan egongo ditu gaur, astelehena, Santa Ana antzokian: 09:00etan HHko 5 urteko eta LHko 1.-4. mailetako ikasleen-

dako; 11:15ean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailakoendako; eta 14:30ean LHko 5. eta 6. mailakoendako eta DBHko 1. eta 2. mailakoendako.

DEIAK I

• **I. Bertso Txapelketa egingo du Eskola Politeknikoak** Mondragon Goi Eskola Politeknikoak I. Bertso Txapelketa antolatu du biharko, martitzena, Arrasateko Uarkape pilotalekuko jatetxean. 21:00etan, afaria egingo dute, eta 22:30ean, sei gaztek bertso lehiaketako finala jokatuko dute.

MUSIKA I

• **Disko-jartzaile baten emanaldia 3.60 aretoan** Gorka disko-jartzaileak sesioa egingo du zapatuan, hilak 15, Arrasateko 3.60 aretoan, 03:00etan.

ERAKUSKETAK I

• **Menchu Gal margolariaren erakusketa Aroztegin** Menchu Gal margolari irundarraren lanen erakusketa egongo da Bergarako Aroztegi aretoan apiril bukaeraraino. Orduetgia hau da: astegunetan, 18:30-21:00; zapatuetan, apirilaren 13an, 14an eta 15ean, 12:00-14:00 eta 18:30-21:00; domeketan eta apirilaren 16an: 12:00-14:00. Hilaren 17an itxita dago.

• **Juan Jose Altunaren margolanak Ordizian** Juan Jose Altuna margolari arrasatearraren erakusketa dago Ordiziako kultura etxean apirilaren 28ra arte.

• **Xavier Espinet katalanaren erakusketa Aretxabaletan** Xavier Espinet artista katalanaren margolanak eta eskulturak ikusteko aukera dago Aretxabaletan, Iralabarri plazako kultura etxean, egunero apirilaren 12ra bitartean, 18:00etatik 20:00etara.


• **Josu Okina bergararraren erakusketa Eibarren** Josu Okina bergararrak margo erakusketa dauka Eibarko Arrate kultur elkartearen hileren 17ra arte, honako ordutegian: astegunetan, 19:00-21:00 eta zapatu eta jaiegunetan, horrez gain, 12:00-14:00.

• **Maria Dolores Lonbide soraluzetarraren erakusketa** Maria Dolores Lonbide margolari soraluzetarraren erakusketa zabalduko dute gaur, astelehena, Elgetako Espaloia antzokian.

IKASTAROAK I

• **Bertsolaritza ikastaroan izena eman daiteke** Elgetako Udal Euskara batzordeak bertso ikastaroa antolatu nahi du. Izena emateko epea apirilaren 28ra artekoa da, udal-etxean.

Zorion agurrak



ARRASATE
Juanito Alkorta
Apirilaren 8an, 78 urte. Zorionak eta urte askotarako. Iñigoren partetik.



ARRASATE
Ander Gonzalez
Apirilaren 9an, 8 urte. Zorionak! Etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Garazi Garitaonandia
Apirilak 12, 9 urte. Etxekoak eta bereziki Nagore.



ARRASATE
Goio Arana
Apirilaren 17an urteak. Zorionak eta urte askotarako! Lankideak.



ARRASATE
Imanol Soriano
Apirilaren 20an, 26 urte. Zorionak eta urte askotarako! Lankideak.



ARRASATE
Ariane Amozarrain
Apirilaren 20an, 5 urte. Musu bat eta urte askotarako! Familiakoak.



ARRASATE
Ander Amozarrain
Apirilaren 22an, 7 urte. Musu bat eta urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA
Ainhoa Salillas
Apirilaren 9an, 2 urte. Zorionak! Etxekoak. Bereziki Unai.



BERGARA
Maria Edroso
Apirilaren 10ean, 5 urte. Patxo bat. Urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA
Imanol Ibarra
Apirilaren 11n, 40 urte. Zorionak! Maialen eta Arantzazu.



BERGARA
Leire Sahuillo
Apirilaren 11n, 14 urte. Urte askotarako, polita! Etxekoan partetik.



BERGARA
Beñat Landa
Apirilaren 11n, 8 urte. Musu bat. Zorionak! Etxekoak eta Sara.



BERGARA
Unai Salillas
Apirilaren 13an, 4 urte. Zorionak! Etxekoak. Bereziki Ainhoa.



BERGARA
Aitor Zurro
Apirilaren 13an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA
Mireia Larrañaga
Apirilaren 21an urteak. Zorionak eta urte askotarako! Lankideak.



ARETXABALETA
Irati Mendieta
Apirilaren 7an, 2 urte. Zorionak eta musu handi bat. Aitaxo eta amatxo.



ARETXABALETA
Josune Blanco
Apirilaren 11n, 6 urte. Zorionak! Gurasoak, Maitane eta Igor.



ARETXABALETA
Aitor Sanchez
Apirilaren 9an, 5 urte. Zorionak! Familiako guztien partetik.



ARETXABALETA
Beñat Basabe
Apirilaren 13an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Mendiola-koak eta lagunak.



ARETXABALETA
Amaña Lasagabaster
Apirilaren 19an urtebetetzea. Zorionak! Lankideak.



OÑATI
Leire Kortabarria
Apirilaren 5ean urtebetetzea. Zorionak! Lankideak.



OÑATI
Oier Perez de Arenaza
Apirilaren 10ean, 5 urte. Zorionak familian partetik. Pa!



ANTZUOLA
Marijo Deogracias
Apirilaren 19an urtebetetzea. Urte askotarako! Lankideak.

Hildakoak

Jose Luis Larrañaga Markiegi
Bergaran, apirilaren 6an. 55 urte.
Karmelo Zubillaga Ugalde
Arrasaten, apirilaren 6an. 78 urte.
Jon Ugalde Zaitegi
Arrasaten, apirilaren 7an. 82 urte.

ESKELAK
ASTELEHENKO
GOIENKARIA-N
85 euro
943 25 05 01

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAk** egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria: irratia@goiena.com helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN
FM107.7
ARRASATE IRRATIA

Jaiotakoak



Nahia Barandiaran De la Concepcion
Arrasate • 3,250 Kg. Martxoak 31.
Gurasoak: Ana (Aretxabaleta) eta Jabi (Arrasate). Argazkian: Nahia gurasoekin.



Naroa Balerdi Berezibar
Arrasate • 3,630 Kg. Martxoak 31.
Gurasoak: Beñardo (Musakola) eta Ane (Arrasate). Argazkian: Naroa argazkirako prest aita eta amarekin batera.



Ekai Kortabarria Carnicero
Bergara • 3,350 Kg. Apirilak 5.
Gurasoak: Unai (Bergara) eta Leire (Eibar). Argazkian: Ekai bapo lo ama eta amama Itziar ondoan dituela.



Nahia San Martin Plazaola
Bergara • 3,255 Kg. Apirilak 5.
Gurasoak: Jesus (Bergara) eta Nerea (Bergara). Argazkian: Nahia bapo lo aitaren besoetan.



Inar Cabo Mundiñano
Antzuola • 3,590 Kg. Apirilak 5.
Gurasoak: Patxi (Antzuola) eta Amaia (Etxarri). Argazkian: Inar lo bere kumatxoan.



Leire Garcia Salido
Arrasate • 3,190 Kg. Apirilak 6.
Gurasoak: Antonio (Arrasate) eta Mari Mar (Arrasate). Argazkian: Antonio, pozik, alaba Leire besoetan duela.



Garazi Aramendi Arantzabal
Bergara • 2,650 Kg. Apirilak 7.
Gurasoak: Iñaki (Bergara) eta Naiara (Bergara). Argazkian: Garazi bere kuman bapo lo.



Garazi Uriarte Arregi
Oñati • 3,200 Kg. Apirilak 7.
Gurasoak: Iñaki (Oñati) eta Ana Rosa (Oñati). Argazkian: Garazi bere kumatxoan bapo lo.

Oharra



Txakurra galduta
Erramu Zapatuan, apirilak 8, *Doa* izeneko txakur beltz bat galdu zen Bergaran. Ikusten baduzue, deitu, mesedez, telefono zenbaki haue-takoren batera: 626 33 50 76 edo 629 75 22 29.

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7
'Igo autobusera' | 10:35

Jon Molina San Andreseko parrokoa

Jon Molina abadeak Harresi aretoan ikusgai dagoen *Gurutz-bideak* erakusketaren gainean jardungo du; Arantzazuko erromesaldia eta Aste Santua ere izango dira berbagai. Gazte topaguneaz Jon Zuloaga arituko da, 11:10ean.

Oñati Irratia

FM 107.4
'Eguerdiko saioa' | 12:15

Kirolaren onurak

Luis Mari Zulaika EHUko irakasleak hitzaldia egin zuen aurreko astean Oñatin, kirola egiteak haurrei dakarkien onura psikologikoen gainean. Hitzaldian azaldutako hainbat ideia inguruan erreportajea eskainiko dute eguerdi partean.

Euskadi Irratia

FM 104.4
'Faktoria' | 10:00

Egunotan Saharan dauden euskaldunekin berbetan

Radio Euskadi

FM 98.2
'Boulevard' | 09:30

Javier Madrazori elkarrizketa

Herri Irratia

FM 99.8
'Kalez kale' | 11:30

Karmen Irizar Topaguneko presidentea

GOITB programazioa

Astelehena, 10



'Harmailatik', ibarreko kirol taldeen jarraipena 22:15

Julen Iriondok aurkezturiko saioan, kirol albisteei gainbegiratua. Aste bukaeran jokaturako partiduetako irudiak eta protagonisten iritziak.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo: Bologna prozesua.
- 14:15 Eltze beroa: Izozkiak.
- 14:30 MI.
- 14:45 Gaurkoak.
- 14:47 Zera dio.
- 15:00 Munduari bueltaka: Indonesia.
- 15:30 MI. Eguraldia eta burtsa.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean: Paul Nicholson.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Gaurkoak.
- 16:47 Eltze Beroa.
- 17:00 Didjeridu: Mikel Galdos.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Sustrai.
- 18:45 Gaurkoak.
- 18:47 Danbaka.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 16 mm.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Jazz zikloa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 11



'Berbaire': gizarte eta politikako gaiak 22:15

Maite Aristegi, Jon Molina eta Joserra Elortza gonbidatuek gizarte eta politikako gaiak jorratuko dituzte Gorka Etxabe kazetariarekin batera.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz zikloa.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:45 Gaurkoak.
- 14:47 Eltze beroa.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Gaurkoak.
- 16:47 Zera dio.
- 17:00 Jazz zikloa.
- 17:30 Denial Danbaka saioan.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea: Bertiz parkea.
- 18:15 Munduari bueltaka: Indonesia.
- 18:45 Gaurkoak.
- 18:47 Motzean.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Ilunpean: Paul Nicholson.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 12



Ane Muñozen film laburra '16 mm' saioan 22:15

Ane Muñozen *El salto de Beamon* ikusteko aukera izango da. Amagoia Lasagabaster kazetariak zinemagile hondarriarriaren elkarrizketatu du.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbaka.
- 14:30 MI.
- 14:45 Gaurkoak.
- 14:47 Danbaka.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Gaurkoak.
- 16:47 Eltze Beroa.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 16 mm: Iñigo Iruretagoienaren film laburra.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Gaurkoak.
- 18:47 Zera dio.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Didjeridu: Mikel Galdos.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 16 mm: Ane Muñozen film laburra
- 22:45 Berriak
- 23:15 Erreportajea: Bertiz parkea.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 13




Paul Nicholsoni egindako elkarrizketa 11:30

Oihana Elortzak Paul Nicholsoni egindako elkarrizketa. EHNEko kanpo harrematarako arduraduna gertutik ezagutzeko aukera.

- 8:00 Emisio hasiera.
- 8:05 Marrazki bizidunak.
- 11:00 Behazulo.
- 11:30 Ilunpean: Paul Nicholson.
- 12:00 Eltze beroa.
- 12:15 16mm.
- 12:45 Sustraiak.
- 13:15 Elkartasun bideak.
- 13:45 Didjeridu. Saioa Arantzabal.
- 14:15 Klip@k.
- 14:30 Aste Santuko prozesioak.
- 15:00 Jazz Mintegia.
- 15:30 Bertsoak.
- 16:00 Sustrai.
- 16:30 Didjeridu.
- 17:00 16mm. Ane Muñoz.
- 17:30 Marrazki bizidunak. Snork dance eta Card Sakura.
- 19:15 Eltze beroa. Helatua.
- 19:30 Aste Santuko prozesioak.
- 20:00 Behazulo. Bologna.
- 20:30 Zera dio.
- 20:45 Ilunpean: Paul Nicholson.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Bertsoak.
- 22:15 16mm.
- 22:45 Elkartasun bideak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 14



Marrazki bizidunak gaztetxoendako 08:05, 14:15, 18:45

Popeye, *Cardcaptor* eta *Snorkdance* marrazki bizidunekin gozatzeko aukera. Goizean hasita, hiru aukera ostiralean zehar.

- 8:00 Emisio hasiera.
- 8:05 Marrazki bizidunak.
- 11:00 Klip@k.
- 11:30 Iparrorratza.
- 12:00 Didjeridu.
- 12:30 Eltze beroa.
- 12:45 Aste Santuko prozesioak.
- 13:15 Munduari bueltaka. Indonesia.
- 13:45 Klip@k.
- 14:15 Marrazkiak: Snorkdacen eta Popeye.
- 15:15 Ilunpean. Andoni Agirrego.
- 15:45 MKT.
- 16:15 Behazulo. Haurren lehenengo hiru urteak.
- 16:45 16mm. Ane Muñoz.
- 17:15 Bertsoak.
- 17:45 Teknopolis.
- 18:15 Elkartasun bideak.
- 18:45 Marrazkiak.
- 19:15 Iparrorratza. Sahara.
- 19:45 Behazulo. Haurren lehenengo hiru urteak.
- 20:15 Zera dio.
- 20:30 Ilunpean. Andoni Agirrego.
- 21:00 Didjeridu. Saioa Arantzabal.
- 21:30 16mm. Ane Muñoz.
- 22:00 Bertsoak.
- 22:30 Erreportaia.
- 23:00 Aste Santuko prozesioak.
- 23:45 Emisio amaiera.

Kamera aurrean



"Aita Menniko eguneko zentroan asteburu eta jaiegunetan aisiarekin zerikusia duten ekintzak egingo ditugu"

OLATZ URIARTE | GIZARTE LAGUNTZAILEA
Berriak, 2006-04-06



"Talde lanik ez genuen egiten Gobernu batzordean. Egoera jasanezina zelako kanporatu dugu Xabier Sarasua"

ARRITXU OLIDEN | ARETXABALETAKO ALKATEA
Berriak, 2006-04-05

'Harmailatik'

Astelehenean, 21:15ean
Julen Iriondok aurkeztuta





Hamarrekoa

PAUL NICHOLSON | EHNE-KO KIDEA

"Sarri joaten naiz arrantzara, eta arrain handiena harrapatu gura izaten dut beti"

Oihana Elortza

1. Badago baserririk Londresen? Ez dakit, horrenbeste baino hazi da... Baina Ingalaterran oso baserri gutxi daude; nekazari lur eta inguruak bai, abeletxe handiak ere bai, baina baserri txikirik ez.

2. Noiz etorri zinen Euskal Herrira? Nora? 5 urterekin Iparraldera etorri nintzen, Haltsura. Lehengusu baten gurasoak ere erbesteatuak ziren eta *tribu* antzerako bat sortu genuen han. Gurasoak Londresen gelditu ziren eta tarteka etortzen ziren. 8 urterekin amaren jaiotetxera joan nintzen, Mendexara.

3. Baserri giroko zerk erakarri zintuen? Lanak. Eskozian egon nintzeanean, baserri lana zen aurkitzen errazena. Ez zen askorik irabazten, baina gustatzen zitzaidan eta arlo horretako ikasketak egin nituen han.

4. Noiz pasa zinen mugimenduetan parte hartzera? Naturala izan zen. Europako negoziazioen garaian, EHNEko Bizkaiko presidentea nintzen. Ingelesa eta

frantsesa hitz egiten nuen, gaia interesatzen zitzaidan eta horrelaxe hasi nintzen, duela 20 bat urte.

5. Ikusten zen orduan baserriaren gainbehera? Bai, Alemanian, Ingalaterran eta Eskozian hasita zegoelako ordurako.

6. Zeuk egiten dituzu etxe-ko erosketak? Batzuetan bai. Denda txikietan egiten ditut beti, ez naiz merkataritza-gune handietara joaten.

7. Zer pentsatzen duzu sasoiak ez den fruta bat ikusten duzunean? Begira gelditzen naiz, nongoa, noizkoa eta ze produktu sartu ote dizkioten pentsatzen. Horrelakoe-tan, fruta hori utzi eta beste bat hartzen dut.

8. Nola gogoratzen dituzu Arafaten ondoan egon zinen egunak? Kanpo-koek gehiago ikusiko eta jakingo zuten guk baino, gu barruan geunden eta. Konturatu nintzen Hamas indarra hartzen ari zela. Uste dut ez dela berri txarra hauteskundeak Hamasek irabaztea, AEBen aurkako erresistentzia izan delako.



Santanderkoek esaten ei dute behia ez dela jaiotzen den tokikoa, belarra jaten duenakoa baizik. Eta berdina gertatzen zaio Paul Nicholsoni ere. Londresen jaio zen, duela 59 urte. Aita ingelesa da eta ama bizkaitarra. Hura Ispasterren bizi da egun, baserri baten, eta 12 eta 20 urteko bi alaba ditu. Eskozian ezagutu zuen baserri mudua eta ordutik hona dabil baserriaren alde lanean.

9. Baduzu ganadurik etxean? Ez, hara eta hona nabil eta aspaldian. Ordua dut. Orain patatak sartzen ari naiz, hazteko, eta baita beste lursail bat prestatzen ere kipurak landatzeko.

10. Itsasoa ala hondartza gurago? Itsasoa. Arrantza frustratua naiz. Sarri joaten naiz arrantza egitera, eta arrain handiena harrapatu gura izaten dut beti.



Biharamuna

Leire Lardizabal

Aupa, zuek!

Penintsula iberikoa iparretik hegoraino zeharkatu eta egunaren kolore guztiak pasa ditugu asteburuan autobusean. Eserlekuan hainbat postura probatu arren, askok ez genuen lo egiterik lortu, baina 25 pertsona gogoz heldu ginen zapatuan Granada eta Kordobako espetxeetara, **Unai Parot** eta **Gazta**-ri gure berotasuna helaraztera.

Guardia Zibilaren zaintzapean, suziriak, Ikurrinak eta megafonia hartuta, bi kartzelei eman genien bira. Bihotzetik ozen oiuhatu genien isolatutako zelda haetatik entzungo ote ziguten jakin barik. Eta bueltan, "Aupa, zuek!", esaten ziguten gogor. Euskaraz hautsi genituen, momentu batez, haiek isildu nahi dituzten kateak, Andaluzia arrotzean. Euskaraz erakutsi zuten euskal preso politikoak direla, eta euskaraz aldarrikatu genuen haien askatasuna.

Aste Santuko irteera operazio-ko kanpaina dela eta, etxeetara deika ari direla entzun dut, jendeari bidean hil daitekeela esanez. Euskal Herrian astero dago espetxeetarako irteera operazioa. Eta nik dispertsioaren eraginez hainbat pertsona zauritu eta hil direla gogorarazi nahi dut. Eta **Gazta** eta **Parot** Andaluzian dituzten bahitu politikoak direla, bake prozesu garaian.

Bakarren batzuek, hasteko, sakabanaketaren bide luzeen kalbarioari amaiera ematen jarri behar-ko lituzkete indarrak. Kartzeletara baino gehiago, konponbide justu bateranzko bidea baita egunero urratu beharrekoa. Errespetatu daitezela presoan eskubide sozial eta politikoak! Guk etxean nahi ditugu.

Simply Clever



BERE KATEGORIAKO HANDIENA
Škoda Superb
1.9 TDI 105 ZP 22.020 €-tik aurrera.

Škoda Superb 1.9 TDI 105 ZP Classic. Penintsularako eta Balearretarako gomendatutako salneurria. Garraioa, zergak, eta Prever plana barne. batez besteko kontsumoa: 5,6 l/100 km. CO₂ isurketak 151 g/km. Argazkia Elegance akaberadunarena da.

UDALAITZ Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70